



**bertsozale**  
**elkartea**

**2020ko egitasmoa**

# Aurkibidea


<b>1. KUDEAKETA OROKORRA</b> .....	4
1.1 Lehendakaritza taldea.....	4
1.2 Koordinazioa .....	6
1.3. Administrazioa .....	9
1.4. Feminismoa .....	12
<b>2. KOMUNIKAZIOA</b> .....	15
<b>3. HEZKUNTZA</b> .....	24
<b>4. SUSTAPENA</b> .....	30
<b>5. LANKU KULTUR ZERBITZUAK</b> .....	34
<b>6. HEDAPENA</b> .....	36
<b>7. IKERKUNTZA</b> .....	42
<b>8. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA</b> .....	47
<b>9. HERRIALDEETAKO EGITASMOAK</b> .....	58
9.1. Arabako Bertsozale Elkarteak .....	59
9.2. Bertsularien Lagunak Elkarteak .....	67
9.3. Bizkaiko Bertsozale Elkarteak .....	73
9.4. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak .....	76
9.5. Nafarroako Bertsozale Elkarteak .....	81

## Sarrera


2020. urteko egitasmoa partaidetzari buruzko prozesuak zeharkatuko du. 2018an erabaki genuen datozen 12 urtetarako helburu eta ildo estrategikoak zeintzuk izango ziren. Bada, aurten helburu horiek erdiesteko behar dugun antolatzeke, parte hartzeke eta funtzionatzeko modua zein den erabakiko dugu. Horretarako, Bertsozale Elkartearen bueltan dagoen ekosistema zabal eta anitz horretako kidegoarekin parte hartze prozesua egitea da asmoa.

Dokumentu honetan jaso dira 2020 urtean sail, herrialde eta bestelako erabakigune eta jardun eremuetan egingo diren asmo eta ekintzak.

Bertsozale Elkartearen **egitura**



Bertsozale Elkartearen **jardun eremuak**



# 1. KUDEAKETA OROKORRA

## 1.1 Lehendakaritza taldea

Helburuak	Ebaluazio adierazleak
<b>Zuzendaritza lana bermatu eta Elkartearen ordezkapen lanez arduratu.</b> Lehendakaritza taldea	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zuzendaritza Batzordearen bilerak gidatu eta aktak sinatu.</li><li>- Kultur elkarte, herri administrazio, alderdi politiko, gizarte erakundeekiko... harremanak zaindu.</li><li>- Harreman horietan elkarlan guneen gaineko gogoeta egin.</li><li>- Elkartearen ordezkaritza lanak bete.</li><li>- Mintzola Fundazioan elkartearen ordezkaritza eta lehendakaritza bete.</li><li>- Mintzolako patronatua gidatu.</li><li>- Lankuko Administrazio Kontseiluko lehendakaritza.</li></ul>
<b>Estatutuek ezarritako arauzko betekizunei erantzun.</b> Idazkaritza	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak: gai zerrendak adostu eta aktak sinatu.</li><li>- Batzar Nagusia: gai zerrendak adostu eta akta jaso.</li><li>- Estatutuek arautua bete dadin zaindu eta egokitzapen proposamenak egin beharrezkoa bada.</li><li>- Bazkideen erroldaren ardura.</li><li>- Belaunaldi berrien zubi lana.</li></ul>
<b>Finantza gaien ardura: aurrekontuen oreka, exekuzioaren kontrola, kontabilitatea eta diruzaintza zaindu, arauzko bete beharrei erantzun.</b> Diruzaintza	<ul style="list-style-type: none"><li>- Baliabide ekonomiko eta aurrekontuaren gaineko kontrola egin: aurreikuspen planaren garapena zaindu.</li><li>- Elkarte eta sailen aurrekontuen exekuzioa zaindu: desbideratzeen aurrean neurriak hartu edo iradoki.</li><li>- Elkarte guztien kontabilitatearen kontrola eraman.</li><li>- Exekuzioaren berri eman Zuzendaritza Batzordeari hiru hiletik behin.</li><li>- Diruzaintza planak koordinatzeko bilerak herrialdeetako diruzainekin: urtean 2-3.</li><li>- Elkartasun Kutxaren funtzionamendu zuzena bermatu eta neurri berezirik hartu behar bada, hartu..</li><li>- Lankuren egoera ekonomikoaren jarraipena egin.</li><li>- Salbuespen neurrien proposamena landu.</li></ul>

<b>Mintzola Fundazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkaratearen ordezkariak lanak egin Mintzola Fundazioan.</li> <li>- Proposamenak aztertu, eztabaidak bideratu eta proposamen zehatzak Zuzendaritza Batzordera eraman honek erabaki dezan.</li> <li>- Zuzendaritzak ahalbidetuta erabakiak hartu.</li> <li>- Mintzola Fundazioan elkaratearen gidaritza.</li> </ul>
<b>Elkaratearen bateratzea eta barne araudia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barne araudiaren lanketari segida eman: LEB berriak eta aplikatu; aginte organoen osaketa eta parte-hartzea aztertu.</li> <li>- Bateratze prozesuarekin jarraitu (aurrekontuak lantzeko irizpide bateratuak, LEB, bakoitzaren funtzio eta ardurak, funtzionamendu bateratuak, Tresna bateratuen erabilera eta funtzionamendua).</li> <li>- Elkartasun kutxaren funtzionamendua bermatu.</li> <li>- Finantzazio publikoa eta autofinantzaketa lerroa lantzeko ekimenak proposatu.</li> <li>- Gogoeta estrategikoaren ondorioak garatu eta jarraipena egin.</li> <li>- Funtzionamenduaren inguruko partaidetza prozesuan parte hartu eta herrialde nahiz sailen funtzionamendu eta antolaketaren jarraipena egin.</li> </ul>

**Lehendakariak:** Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Arrate Illaro, Xabi Igoa, Miren Artetxe eta Beñat Gaztelumendi

## 1.2 Koordinazioa

Helburuak	Ebaluazio adierazleak
<p><b>Elkarrearen funtzionamenduan eragin</b></p>	<p><b>Koordinatzaile bikoaren funtzionamendua aztertu eta hobekuntzak proposatu Bileren kudeaketa egokitu:</b>            Batzar Nagusia, Zuzendaritza, Lehendakaritza, Kudeaketa, Koordinazioa... Egutegien eta ordutegien betetzea, bileren iraupena eta dinamizazioa, informazioa landu.</p> <p><b>Aurrekontuaren gorabeherei jarraipena egin:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 50.000 emaitzara gerturatu.</li> <li>- Zerbitzu komun en finantzaziorako ekarpen bateratua aztertu.</li> </ul> <p><b>Personal gaiak landu:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan egutegiaren eta ordutegiaren zehaztea.</li> <li>- Lan erregistroen jarraipena egiteko modua erabaki eta gauzatu.</li> <li>- Irakasleen Langileen Eskubide eta Betebeharren (LEB) araudia berri eta aplikatu.</li> <li>- EHBeko langileen formazio bateratua bultzatu eta etorkizuneko plana zirriboratu.</li> </ul>
<p><b>2018ko gogoeta estrategikoaren dibulgazioa eta sozializazioa, eta funtzionamenduaren eta antolaketaren inguruko partaidetza prozesua garatu</b></p>	<p><b>Gerora mugitzen dokumentuaren dibulgazioa. Funtzionamenduaren inguruko partaidetza prozesua gauzatu (<i>ikus atxikitako dokumentua</i>).</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dibulgazio euskarria sortu: aldizkari digitala eta bideoa.</li> <li>- Elkarlanak ditugun edo izan ditzakegun 25 erakunderi aurkeztu.</li> </ul>
<p><b>Sailen eta herrialdeen egitasmoen jarraipena egin; eta egitasmoen eta sailen funtzionamenduaren jarraipena egin. Ikus, sailez sail egitasmoak (segidan)</b></p>	<p><b>Mintzola patronatuan parte hartu</b>  <b>Lankuren bitariko batzordean parte hartu.</b>  <b>Herrialdeen jarraipena nola egin pentsatu eta landu.</b></p>
<p><b>Harremanak eta elkarlanak: administrazioa, gizarte erakundeak eta enpresa.</b></p>	<p><b>Hitzarmenak zaindu:</b> Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Laboral Kutxa, Emakunde, Kutxa, EHU.</p> <p><b>Dirulaguntzen etengabeko bilaketa eta lanketa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kultura, euskara, hezkuntza eta berrikuntza atalean daudenak identifikatu.</li> <li>- Gogoeta egin deialdi egokienak zein diren.</li> </ul>

	<p><b>Babesletza pribatua:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Babesletza sustatzeko enpresen interesguneak identifikatu.</li> <li>- Hamabost enpresa izendatu eta proposamenak egin. 15.000 euroko diru sarrera bideratu.</li> </ul> <p><b>Gizarte erakundeetan parte-hartzea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskalgintza: Kontseilua eta Euskaraldia.</li> <li>- Kulturgintza: eragileen mapa eta harreman sarea egin.</li> </ul> <p><b>Publizitatea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <a href="http://www.bertsoa.eus">www.bertsoa.eus</a> bideoen atariko publizitatea landu.</li> <li>- Bizkaiko eta Xilaba txapelketen publizitatea landu eta %7a bideratu.</li> </ul> <p><b>Gure egitasmoen gonbidapenak</b> landu: txapelketen finalak, bereziki.</p> <p><b>Elkarlan egitasmoak ditugun erakundeen ekitaldietan elkarte ordezkari</b> landu.</p>
<p><b>Proiektu jakinak bultzatu koordinaziotik</b></p>	<p><b>Mintzola Ahozko Lantegia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoeta bideratu. Ikuspegia, egitura eta baliabideak.</li> <li>- 2021. urteko egitasmoaren oinarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bertsolaritzaren eta ahozko kultur jardueren Ikertegia.</li> <li>o Elkargunea: Ahostegunak eta ahots baten.</li> <li>o Kulturaretea: Ahozko Inprobisazio kantatua.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>Ondare izendapena.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jaurlaritzak bertsolaritza Ondare ez material izendatzea.</li> <li>- Jaurlaritzak Unescon hautagaitza aurkezteko zein asmo duen jakitea.</li> </ul> <p><b>Berdintasun plana egiteko egitura antolatu eta diru laguntzak lortu.</b></p> <p><b>Eraso matxistak kudeatzeko protokoloa.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Protokoloaren erredakzioa amaitu eta jarraipenerako batzordea sortu.</li> <li>- Martxan dauden kasuen kudeaketa egin.</li> </ul> <p><b>Kultura ikuspegia eta kontzientzia elkarrean txertatzeko aukerak aztertu.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontzientzia kulturalaren azterketa gauzatu (master amaierako lana).</li> <li>- Kontzientzia horren irakurketa publikorako bideak ezarri.</li> </ul> <p><b>Txapelketetan lan konkretuak koordinaziotik.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolari Txapelketa Nagusia 2012 lantzen hasi (sustapenean).</li> <li>- Bertsolaritzako agenteen arteko harremanak indartu (sustapenean).</li> <li>- Bizkaiko Txapelketa/Xilaba finalerako segurtasun planak bermatu.</li> </ul>

**Elkartearen argitalpen politika definitu.**

- Sailen eta herrialdeen beharrak jasotzen dituen dokumentua osatu.
- Behar diren euskarriak sortzeko elkarlanak bultzatu: Elkar, Durango,...

**Bazkidezari buruzko gogoeta eta 2021 kanpaina diseinatu.**



### 1.3. Administrazioa

Helburuak	Ebaluazio adierazleak
<b>Administrazio Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EHko administrazio lantaldean, koordinazioa (astean behin bilera, lanak antolatzeko).</li> <li>- Diruzain eta koordinatzailearekin elkarlan estuan jardun. Koordinatzailearekin asteroko bilera eta Diruzainarekin bilkura hilero.</li> <li>- Administrazio batzordearen koordinazioa eta jarraipena.</li> <li>- Herraldeetako diruzainekin koordinazio bilkurak egin: urtean bi.</li> </ul>
<b>Finantza gestioa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrekontua orekatu eta exekuzioaren berri Zuzendaritzari eman</li> <li>- Kontabilitatea eguneratua eraman</li> <li>- Diruzaintzaren jarraipena egin</li> <li>- Inbentarioa eguneratu</li> <li>- Herralde guztien kontuak eguneratu</li> <li>- Ogasuneko izapideak bete</li> <li>- Irizpide bateratuak landu eta zaindu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinatzaile eta diruzainarekin elkarlanean aurrekontuaren egitura erabaki eta jarraipena egin.</li> <li>- Aurrekontuen kontrol eta jarraipenerako bitartekoak prestatu.</li> <li>- Laguntza eskariak eta beren zuriketa garaiz egiteko modua egin</li> <li>- Sarrera irteeren gaineko kontrola eraman; ordainketa epeak kudeatu jarritako irizpideen baitan.</li> <li>- Diruzaintzako kontuak adi zaindu, sarrerak eta irteerak planifikatuz eta diruzaintza plana prestatuz. Behar den kasuetan, diruzaintza beharretarako maileguen koordinazioa eta kontrola egin.</li> <li>- Arauzko kontabilitatea eraman, bertsozale Elkartea osatzen duten elkarte guztietan.</li> <li>- Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta aitorpenak egunera eraman aholkularitzekin elkar-lanean.</li> <li>- Urteko kontuak eta memoria prestatu.</li> <li>- Inbentarioa eguneratu, urtean behin.</li> <li>- Finantza gaietan ezarritako irizpideak bete daitezzen bermatu.</li> </ul>

<p><b>Administrazio eta erakundeekiko betebeharrak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- EJ – Elkarteen erregistroa</li> <li>- GFAn</li> <li>- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteen erregistroarekiko betebeharrak egunera eraman</li> <li>- Mintzolan Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitako erakunde gisa dituen betebeharrei erantzun.</li> <li>- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroarekiko betebeharrak egunera eraman.</li> <li>- Elkarreak erregistratuta dituen marken kontrola (patente eta markak).</li> <li>- EUSTAT, INE,... inkestak bete.</li> </ul>
<p><b>Giza baliabideen kudeaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan kontratuen gestioa eta jarraipena</li> <li>- Gizarte Segurantzaren irizpideak bete</li> <li>- Lan arrisku eta prebentzio plana bete</li> <li>- Formazio hobarien kudeaketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza Batzordeak erabakitako lan hitzarmenak egin eta baldintzak zaindu.</li> <li>- Lan kontratuen kudeaketa (altak, bajak, aldaketak,...).</li> <li>- Nominen jarraipena egin.</li> <li>- Gaixoaldi edo lan istripu bajen kontrola.</li> <li>- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera eraman.</li> <li>- Baimen, eszedentzia,...kontrola</li> <li>- Lanaldien erregistro orriak jaso.</li> <li>- Lan arrisku eta prebentzio plana:</li> <li>- Urteroko jarraipena</li> <li>- Langileen azterketa medikuen egutegia</li> <li>- Lan arrisku eta prebentzio planaren barruan langileen formazioa</li> <li>- Langileen formazioaren bonifikazirako tramiteak bideratu.</li> </ul>
<p><b>Bazkide errolda</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkideen alta eta bajak erroldatu, eta datu-baseak (bertsosarreak, outlook,...) egunera eraman.</li> <li>- Eskatzen diren informeak egin.</li> <li>- Kuotaren kobraketa bideratu eta jarraipena egin.</li> </ul>
<p><b>Egiteko zehatzak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- LINAX</li> <li>- Onura Orokorreko Erakunde izendapena</li> <li>- Datu Pertsonalen Babeserako legea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- LINAX (Baliabide ekonomiko eta Giza Baliabideen kudeaketarako aplikazioa) diseinu eta garapen lanak amaitu.</li> <li>- Onura Orokorreko Erakunde izendapena lortzeko prozedurak bideratu.</li> <li>- Datu Pertsonalen Babeserako legea inplementatu eta sail eta herrialdeen zalantzak bideratu.</li> </ul>

<p><b>Ohiko egitekoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Telefono deiak hartu eta banatu.</li> <li>- Postaz arduratu: egunerokoak igorri eta jasotakoak banatu.</li> <li>- Koordinatzaile eta sailtako eragileei behar duten laguntza eskaini: informazioa, laguntza eskariak, zuriaketak e.a.</li> <li>- Bitarteko teknologikoen funtzionamenduaren ardura eraman:</li> <li>- Azpiegitura informatikoa (Sarearen mantentzea: zerbitzari, intranet, erosketak, erabiltzaileak,...)</li> <li>- Ikus-entzunezko baliabideen mantenua</li> <li>- Artxibo informatikoen ziurtasun kopiak egin.</li> <li>- Elkarteko artxibo administratiboa antolatu eta egunera eraman.</li> <li>- Ibilgetua Materialaren inbentarioa egunera eraman.</li> <li>- Tresneriaren sarrera-irteeren kontrola eraman.</li> <li>- Bulegoko material suntsigarria: aurreikuspenak, erosketak...</li> <li>- Biltegiko izakinen mugimenduaren kontrola eraman:</li> <li>- Biltegian, salmentarako dagoen materialaren ardura (sarrerak, irteerak, urteko inbentarioa,...)</li> <li>- Aretoen erabileraren kudeaketa.</li> <li>- Etxearen mantenua orokorrear.</li> <li>- Bertsoarrak webgunearen kontrola: salmentan jarriko diren ekitaldien urteko egutegia prestatu eta aurrelanak antolatu, salmenten likidazioak prestatu,...</li> </ul>
-------------------------------	--

## 1.4. Feminismoa

<b>Urteko helburuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko gogoetak feminismoan planteatutako ondorioak landu elkartean.</li> <li>- Zer egitura eman, landu elkartean.</li> <li>- Berdintasun plana egiteko baldintzak sortu</li> <li>- Egitasmoa gauzatzeko finantzazioa lortu.</li> <li>- Ahalduntze Bertso Eskola gai-jartzaileei zabaltzeko pausoa eman.</li> <li>- Gizon bertsolarien bertso-eskola feminista sortu.</li> <li>- Eraso matxisten protokoloa sozializatu elkartean.</li> </ul>

<b>Sailaren kudeaketa</b>	
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Feminismoari zer egitura eman elkartean, landu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko gogoetaren ondotik, eta 2019an egituraz egingo den gogoetari lotuta, elkartean feminismoari zer egitura eman, landu. Horretarako prozesua planifikatu eta gauzatu, dagozkien sailekin/kideekin (genero taldearekin, Lehendakaritza taldearekin, eta koordinazio batzordearekin).</li> <li>- Egitura berria sortu eta funtzionamendua abiatu.</li> <li>- Berdintasun plana egiteko finantzaketa eta egitura landu</li> <li>- Egitura horren baitan, eragiletza dedikazioak eta ardurak zehaztu.</li> </ul>
<b>Ekimenak gauzatzeko finantzabideak egonkortu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakunderen hitzarmenari iraunkortasuna eman.</li> <li>- 2019ko egitasmoak gauzatzeko finantzazioa lortu.</li> </ul>

### Bertsozale Elkartearen jardunean genero ikuspegia txertatzea

Helburu zehatzak	Ebaluazio adierazleak
<b>2018ko gogoetak feminismoan jarritako ondorioak landu sailekin eta herrialdeekin</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sail eta herrialde bakoitzari zertan eragiten dion landu, bakoitzarekin. Sail bakoitzak bere ekimenen eta aldaketaren ardura hartu dezan eragin.</li> <li>- Datozen 12 urteetan garatzeko plana idatzi.</li> </ul>

### Formazioa eta sentsibilizazioa

Helburu zehatzak	Ebaluazio adierazleak
<b>Emakume bertsolari eta gai-jartzaileentzat Ahalduntze Bertso Eskola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019/2020 ikasturteari jarraipena egin eta antolakuntza lanak bideratu.</li> <li>- Ikasturtearen balorazioa egin partaide izan diren emakume bertsolariekin eta irakasleekin.</li> <li>- 2020/2021 ikasturtean bertso-eskolan gai-jartzaile emakumeak sartzeko diseinua egin, arduradun izango diren kideekin (gai-jartzaileekin), eta sustapen eragilearekin koordinatuta.</li> </ul>
<b>Gizon Bertsolarientzako Bertso Eskola Feminista</b>	Gizonezko bertsolariek genero ikuspegia lantzeko bertso-eskola sortu. Diseinua eta prozesuan ari diren arduradunekin (sustapen eragilearekin, gai-jartzaileekin) koordinatu, alboan egon.

### Komunikazioa

Helburu zehatzak	Ebaluazio adierazleak
------------------	-----------------------

<b>Barne komunikazioa landu, bereziki, urtean zehar antolatzen ditugun ekimenen berri ematen</b>	Ahalduntze Bertso Eskolaren eta Bertso Eskola Feministaren berri zabaldu, bertsolaritzako agente aktibo guztiengana (barne eta kanpoko taldeak) informazioa helarazteko.
--	--

## 2. KOMUNIKAZIOA

### Urteko helburuak

Komunikazio politika:

- **2021ean gauzatuko den** Bazkidetza kanpaina diseinatu.
- Txapelketa Nagusiaren kokapen estrategiaren diseinuan **parte hartu**.
- **Elkartearen** irudigintzari **buruzko gogoeta egin eta estrategia adostu**.
- **Elkarteak ematen dituen** sariei **buruzko gogoeta egin eta estrategia adostu**.
- **Elkartearen** estilo liburua **idatziz jaso**.

Barne zein kanpo komunikazioan, bereziki landu:

- **Elkartearen** parte hartze prozesuaren **barne komunikazioa**.
- Eraso matxisten kontrako protokoloaren **barne komunikazioa landu eta kanpo komunikaziorako diskurtsoa eraiki**.
- Elkaratearen proiektuari eta 12 urtetarako adostutako lan lerroei buruzko aldizkaria **eta iritzi bideoak gauzatu eta argitaratu**.
- **Elkarteak antolatutako ekintza guztien** barne zein kanpo komunikazioa **lantzea**, bereziki:
  - o Ikerkuntzaren dibulgazioa.
  - o Kulturgintzari buruzko kontzientziaren zabalkundea.
  - o Harreman publikoen zaintza eta bistaratzea.
  - o 2021eko Bertsolari Txapelketa Nagusirako plana diseinatu eta gauzatzeko hasi.
  - o Hedabide guztiekiko harremana zaindu eta eragin, bereziki, aurten:
  - o EITBekin dugun hitzarmen marko orokorra berrikustea.
  - o Naiz irratiarekin hitzarmen orokorra lantzea.
  - o Bertsolari Aldizkariarekiko harremana.

Komunikaziorako erremintak:

- Internet sarea etengabe berrikusi, **aurten bereziki:**
- Bertsozale.eus, mugikorretarako hobekuntzak diseinatu 2021ean inplementatzeko.
- Youtube estrategia birpentsatu.
- Hitzetik Hortzeraren sareko estrategia berrikusi eta elkarlana adostu ETBrekin.
- BertsoZalea berripapera, **bertsio digitalerantz ematen ari garen pausoak azkartu eta etorkizunerako plangintza egin.**

Funtzionamendua:

- **Partaidetza prozesuaren baitan** komunikazio sailaren azterketa egin eta aurrera begirako plangintza diseinatu.
- Lan erregistroen jarraipena **egiteko egokitzapenak egin eta gauzatu.**
- Lurraldeetako komunikazio beharrei arreta gehiago **eskaini.**
- **Webguneetako** editoreen taldea aktibatu.
- **2021eko Bertsolari** Txapelketa Nagusiari begira komunikazio saila indartzeko estrategia diseinatu.
- **Sailaren funtzionamendurako beharrezkoa den** aurrekontuaren bolumen osoa bistaratu.
- Diseinu lanen koordinazioa hobetu.



<b>Sailaren kudeaketa</b>	
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Funtzionamendua eta antolaketa.</b> Egitasmoa zehaztu eta beronen garapena zaindu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020ko egitasmoa zehaztu eta Zuzendaritza Batzordeari proposatu.</li> <li>- Sailaren aurrekontua kudeatu (Bertsozale Elkarte eta Mintzola Ahozko Lantegia)</li> <li>- Sailaren funtzionamendurako beharrezkoa den aurrekontuaren bolumen osoa bistaratu.</li> <li>- Urteko balorazioa eta memoria aurkeztu Zuzendaritza Batzordeari urte amaieran.</li> <li>- Sailaren funtzionamendua aktibatu. Bileren gai ordenak, aktak eta erregularatasuna bermatu.</li> <li>- Lan erregistroen jarraipena egiteko egokitzapenak egin eta gauzatu.</li> <li>- Partaidetza prozesuaren baitan komunikazio sailaren azterketa egin eta aurrera begirako plangintza diseinatu.</li> <li>- 2021eko txapelketari begira saila indartzeko dedikazioaren eta antolaketaren aurreikuspena landu.</li> <li>- Komunikazioan ari diren Elkarteko profesionalen arteko komunikazioa eragin.</li> <li>- Adituen parte hartzea eragin.</li> <li>- Borondatezko kideen parte hartzea eragin.</li> <li>- Herrialde guztietako komunikazio arduradunen arteko eta elkarten arteko komunikazio fluxua bermatu, beharrezkoa den kasuetan komunikazio taldearen bilerak komunikazio taldean ordezkariarik ez duten lurralde horietan eginez.</li> <li>- Diseinu lanetarako dedikazioa eta diseinu lanen koordinazioa hobetu.</li> <li>- Webguneetako editore taldea aktibatu.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmoen eta proiektuen lanketa bestelako bitartekoen bidez aurreratu: posta elektronikoa, barne foroak...</li> <li>- Taldearen formazioa ahalbidetuko duten ikastaro, jardunaldi eta mahai inguruetan parte hartu.</li> <li>- Batzorde finkoetan parte hartu: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Koordinazio batzordean hilean bi aldiz.</li> <li>o Kudeaketa batzordean, hilean bi aldiz.</li> <li>o Zuzendaritza batzordean, hilean behin.</li> </ul> </li> <li>- Egitasmo zehatzetarako sortutako batzordeetan parte hartu: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Parte hartze prozesuaren jarraipen batzordean</li> <li>o Bertsolari Txapelketa Nagusiaren antolakuntza batzordean.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Sailaren jardun eremua identifikatu</b>	Komunikazio taldearen jarduna herrialdeekiko nahiz sailekiko zehar lerroan egituratu, eremuak zehaztuz eta sinergiak aprobetxatuz.

<b>Komunikazio politika orokorra</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Elkartearen komunikazio politika berrikusten eta finkatzen jarraitu eta elkarteko kideak formatu.</b></li> <li>- <b>Komunikazio korporatiboa.</b> Elkartearen balore eta estiloa kontutan hartuko duen diskurtso propio eta koherentea bermatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartearen jardunean Elkartearen balioetan eta estiloan oinarritutako komunikazio politikaren erabilera bermatu.</li> <li>- Gizarteko agente egituratuekiko (elkarte, erakunde, administrazioa...) eta hedabideekiko komunikazio eta harreman politika garatu.</li> <li>- Komunikazio politika modu jarraituan berrikusi garatutako dokumentu guztiak karpeta berean jasoz eta Elkarteko kideak formatuz.</li> <li>- Komunikazio politikaren baitan hainbat atal berrikusi edo garatu:</li> <li>- 2021ean gauzatuko den bazkidetza kanpaina diseinatu.</li> <li>- 2021eko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren kokapena eta helburu komunikatiboak landu.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irudigintzari eta sariei buruzko gogoeta eta lanketa egin.</li> <li>- Komunikaziorako estilo liburuua jaso, garatu eta partekatu, formazioa eman-jasoz. Aintzat hartuz: Bertsozalea.eus, Mintzola.eus, Bdb.bertsozale.eus, bertsosarrerak.eus, Bertsoa.eus, bertsoikasgela.eus, bertso-eskolak.eus, Lanku.eus, Bertsozalea berripapera eta sare sozialak.</li> </ul>
--	---

<b>Barne eta kanpo komunikazio lanak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Barne komunikazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza, Sail, lan-talde desberdinetako kide eta bazkideen arteko komunikazioa bermatu.</li> <li>- Hartzaile multzo honi egokitutako mezu eta erremintak garatu.</li> <li>- Informazioa lehentasunez helarazi elkarte-kideei.</li> </ul> <p><b>Kanpo komunikazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabideekiko harreman iraunkorra landu.</li> <li>- Hartzaile multzo honi egokitutako mezu eta erremintak garatu.</li> <li>- Elkarreak antolatutako ekintzak gizarteratzeko ahalegin berezia egin.</li> <li>- Harreman publikoak zaindu eta koordinatu. Bozeramaleak prestatu.</li> <li>- Publizitatearen gestioa egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sail eta herrialdeen arteko komunikazioa arretaz zaindu.</li> </ul> <p><b>Barne Buletinak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Bertsozale Elkarteko barne buletina: Zuzendaritza, Sail eta lan-talde desberdinetako kideei zuzendurik</b> Barne-buletina hamabostean behin helarazi sail eta herrialdeetako informazioarekin.</li> <li>- <b>Mintzola Fundazioko barne buletina:</b> Mintzolako Patronatu kideei, EHBEko zuzendaritza kideei, ikerlariei... hilean behin helarazi..</li> <li>- <b>Ekitaldien egutegia datu basea elikatu</b> Elkarteko kideek egitasmoei buruzko bisio osoa izan dezaten. Asteko ekitaldien berri igorri Elkarteko kideei.</li> </ul> <p><b>Bazkideei zuzendurik:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- BertsoZalea berripaperaren 10 ale argitaratu, sail eta herrialdeekin elkarlanean. Bertso digitalerako saltoa azkartu. BertsoZalea berritzeko plangintza egin.</li> <li>- Ekintza jakinetan komunikazio ahalegin berezia egin: Batzar Nagusia, Bertso Eguna, Txapelketak, argitalpenak....</li> <li>- Elkarrearen berri (gogoetako ondorioak barne) emateko aldizkaria eta iritzi bideoak garatu eta helarazi bazkideei.</li> </ul>

- Bazkide berriak erakartzeko komunikazio estrategiak diseinatu herrialde eta sailekin elkarlanean eta bitartekoak (irudiak, esku orriak...) garatu. 2021. urterako bazkidetza kanpaina berezia diseinatu.
- Parte hartze prozesuan parte hartu eta horren berri eman.
- Eraso matxisten protokoloaren sozializazioa gauzatu, diskurtsoa eraiki..
- Hedabideek elkartearen proiektuari eskaintzen dioten arretaren jarraipena egin eta eragin.
- Hedabideei Elkartearen egitasmoei buruzko albisteak eta bertsolaritzan albiste diren gaiei buruzko informazioa zein bertso saioen agenda helarazi asteroko maiztasunez.
- Hedabideekin Hitzarmenak: hedapen sailarekin elkarlanean hedabideekin (prentsa idatzia, aldizkariak, irrtiak, telebistak, webguneak...) lankidetza berriak eragin, garatu, lotu. Sinatu duten hedabideei jarraipena egin hartutako konpromisoak betetzen dituztela ziurtatuz. Bereziki landu: EITBekin dugun hitzarmen marko orokorra berrikusi, Naiz irrtiarekin hitzarmen orokorra landu, Bertsolari Aldizkariarekiko harremana aztertu.
- Hedabideetako hemerrotekaren jarraipena egin, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez.
- Hedabideei bertsolaritzaren agenda, artxibo eta ikus-entzunezko dokumentazio zerbitzua eskaini Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez.
- Hedapen sailarekin elkarlanean Elkartearen hedapen sarearen diseinuan parte hartu eta hedabideen jarraipena egin: Hitzetik Hortzera, bertsoa.eus...
- Sailetako eta herrialdeetako elkarteekin elkarlanean aritu egitasmoen komunikazioan aholkularitza eskainiz eta komunikazio lanak bideratuz.
- Kulturgintzan ari garenaren kontzientzia zabaldu.
- Ikerkuntzaren dibulgazioa areagotu.
- Ludikotasunari lekua egin komunikazio ekintzetan.
- Egitasmo hauen komunikazio plana diseinatu eta garatu:
  - Ahostegunak
  - Ahots Baten
  - Arabako Kuadrilla Artekoa 2020

	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Bapatean2019</li> <li>-Batzar Nagusia</li> <li>-Bazkidetza kanpaina</li> <li>-Bertso Eguna: 2020koa gauzatu, 2021ekoa planifikatu</li> <li>-Bertso Udalekuak</li> <li>-Bertsoa.eus</li> <li>-Bertsolari Txapelketa Nagusia 2021</li> <li>-Durangoko Azoka</li> <li>-EAEn, ondare ez materialaren izendapena</li> <li>-EHUko UIK ikastaroak</li> <li>-Eskolartekoa</li> <li>-Hitzetik Hortzera</li> <li>-Ikerketa sariak eta proiektu sariak. Ikerketa kontratuak. KMK beka deialdia</li> <li>-Kultura ikuspegiaren kontzientziaren sozializazioa.</li> <li>-Kulturartekoa. Kongresuak, topaketak.</li> <li>-Lanku. Argitalpenak eta ekoizpenak</li> <li>-Mintzola Mintegia</li> <li>-Nafarroako Bardoak 2020</li> <li>-Onura orokorreko elkarte izendapena</li> <li>-Tesi doktoralak</li> <li>-Udaberria Bertsotan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2020</li> <li>-UEU ikastaroak</li> <li>-Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak</li> <li>-Xilaba 2020</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Harreman publikoak zaindu, koordinatu eta estilo propioan komunikatu. Bozeramaleak prestatu. Gonbidapenak kudeatu eta etxeko gonbidapenak landu.</li> <li>- Publizitate akordioetan adostutakoa exekutatu.</li> <li>- Durangoko Azokan Elkarteak izan behar duen presentzia aztertu eta Lankurekin batera stand-aren ardura hartu. Baita gainontzeko azokatakoea ere, lurraldeekin eta Lankurekin elkarlanean.</li> </ul>
--	---

<b>Komunikazio erreminten kudeaketa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Komunikaziorako erremintak</b> Bisio osoa izan eta estrategiak aurreikusi eta berrikusi</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio erreminta guztien plan estrategikoa etengabe berrikusi eta garatu.</li> <li>- <b>Bertsozalea berripapera</b> 2020ko udaberrietik ahalik eta bazkide gehienei bertsio digitala bidaltzeko estrategia definitu. Diseinua eta edukia berrikusi.</li> <li>- Sarean ditugun <b>atari eta sare sozial guztien osotasuneko ikuspegia izan, horiei buruz</b> hausnartu eta jarraitu beharreko politika birdefinitu eta gauzatu. Irizpidek zehaztu.</li> <li>- Youtubeko strategiari buruz hausnartu eta berrikusi.</li> <li>- Hitzetik Hortzerako sareko estrategia, ETBrekin elkarlanean berrikusi.</li> <li>- 2020an elkartearen webgune guztietako ordezkarien <b>editore taldearen</b> batzordea elkartzen hasi, <b>estilo liburua</b> lantzen hasi begiratu osoa izanez. Talde lana eragin.</li> </ul>
<p><b>Internet</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartearen sareko komunikazio sistemaren kudeaketaren ardura.</li> <li>- Webguneetako informazioa eguneratu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozale.eus, Mintzola.eus, Bertsosarrerak.eus, Bertsoikasgela.eus, Bertsoeskola.eus, Bertsoa.eus, Lanku.eus guneak etengabe eguneratu: atal estatikoak eguneratu, albisteak... baita erdal guneak ere.</li> <li>- Bertsoikasgela.eus eta Bertsoeskola.eus eguneratzeko baliabideak eskatu.</li> <li>- Bertsoa.eus-en, publizitatea landu.</li> <li>- Bertsosarrerak.eus-en publizitatea landu. Bannerrak egokitu.</li> <li>- Bdb.bertsozale.eus: eduki estatikoak berrikusi</li> <li>- Bertsozale.eus. Mugikorretarako txukuntzeko plana zehaztu. argazki handiagoak, lehenengo orrialdea berrikusi... 2021ean hobekuntzak implementatu.</li> <li>- Lanku.eus berri</li> <li>- Bertso-eskolak.eus. Komunikazioari lotutako estrategiaz hausnartu</li> <li>- Sarean elkartearen eta bertsolaritzaren berri hedatu: interneten beste atari eta guneetan Elkarteari buruzko informazioa agertzea bultzatu, eragin...</li> </ul>

<b>Datu-baseak eta hauen babeserako neurriak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Elkartearen Komunikazio politikak garatzeko ditugun Datu Baseak eguneratu, berrantolatu eta behar direnak sortu:</li><li>- Hedabideen datu baseak berrikusi, herrialdeekin elkarlanean: estatukoak, atzerrikoak, EHkoak.</li><li>- BertsoZalea euskarri digitalean bidaltzeko bazkideen datu baseak landu.</li><li>- BertsoZalea jasotzen duten erakundeen datu baseak etengabe eguneratu.</li><li>- Administrazio sailarekin eta Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean Pertsonen Datuen Babeserako neurriak aztertu, inplementatu eta Elkarteko kideen artean zabaldu.</li></ul>
--	---

### 3. HEZKUNTZA

#### Urteko helburuak

- Kudeaketan: **EH mailako egitasmoak gauzaten ditugun eragileen arteko elkarlana landu. Transmisio batzordea funtzionamendu eraginkorraz gauzatu. Herrialdeetako eragileekiko koordinazioa bermatu.**
- Materialgintzan: **[www.bertsoikagela.eus](http://www.bertsoikagela.eus) eta [www.bertsoeskola.eus](http://www.bertsoeskola.eus) elikatu. Materiala sortu irakasle mintegiak, Lanku, Hedapena eta Xenpelar DZrekin. Finantziazioari erantzun herrialdeak eta Lankurekin.**
- Formazioan: **Elkarteko irakasleen formazioaren planteamendua zehaztu eta gauzatu. Irakasleen formazioa uztartu metodologiaren ikerketarekin eta material sorkuntzarekin. Bertso-eskoletako irakasleei ere aukera zabaldu.**
- Aisialdian: **Bertso-udalekuen 5 txanda gauzatu, udalekuen filosofiaren transmisioa eginez hezitzaileei. Hezitzaileekin udalekuen prestaketarako asteburua gauzatu. Ahots Baten egonaldian beste sorkuntza alorretako gazteen parte hartzea handitu eta elkarteekin elkarlana sendotu.**
- Ikastolen Elkartearekin: **Ikastetxeetako proiektua eta Eskolartekoa kudeatu.**
- Komunikazioan: **Ikasturteko ekimenak komunikatu, eta ekimenak baliatu partaideak gure hedabideetara erakartzeko.**
- Ikerkuntzan: **Metodologiaren ikerketa lanarekin jarraitu. Ikastetxeetako datuak bildu. EHU Laboa Katedrarekin elkarlanean "Ahostegunak" egitasmoa gauzatu**
- Generoan: **Emakumeentzat V. Ahalduntze bertso-eskola gauzatu eta ikasturte berrian ekimenaren ardura Feminismoa sailak har dezan traspasoa egin.**



## Sailaren kudeaketa

Helburu zehatzak	Ebaluazio adierazleak
<p><b>Bertso-eskolen batzordeak</b> Herrialdeetan bertso-eskolen batzordeak osatu eta egonkortu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialdeetako Bertso-eskola eta aisialdiko eragileekin koordinatu.</li> <li>- EHko helduen Bertso-eskolen arteko harreman sarea zaindu.</li> </ul>
<p><b>Aisialdi Batzordea</b> Egonkortutako Batzordea hau ilusioz mantendu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalekuen antolaketan eta hezitzaileekin egingo den prestakuntza saioan zuzeneko parte hartzea eta inplikazioa lortzea.</li> <li>- Aisialdiko sarea sendotu. Bertso-udalekuetako Zuzendari, Begirale, Sukaldari eta batzorde kideok batuko gaituena.</li> <li>- Lantaldea gogotsu mantentzea eta giro atsegina zaintzea.</li> </ul>
<p><b>Transmisio batzordea</b> Batzordea funtzionamendu iraunkorraz bildu, eta koordinatu beharreko gaiak eraginkorki bideratu. Gogoeta 2018ri jarraipena emanaz Partehartzeaz egingo den prozesua bideratu batzordean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EH mailako egitasmoak koordinatu EHko koordinatzailearekin, EHko eragileekin eta transmisio arduradunarekin.</li> <li>- Urte honetan EHko 2 eragilek eta arduradunak izango dituzten baja eta eszedentzia zikloak zaindu, ordezkoen zaintzari arreta jarritz.</li> <li>- EH mailako egitasmoak koordinatu herrialdeetako eragileekin.</li> <li>- Herrialdeek euren egoera eta egitasmoen berri ekarri batzordera.</li> <li>- 2018ko Gogoetan datozen 12 urterako zehaztu genituen helburu eta lan ildoetan sakontzen jarraitu. Eta Partehartzeaz egingo den prozesuan batzorde honi dagozkion lanketak bideratu.</li> <li>- Gure baliabideetara egokitu egitasmoak; lehentasunezko gaiak landu batzordean.</li> </ul>
<p><b>Hezkuntza Arautuko irakasle lantaldeak</b> Ikasmateriala sortzeko irakasleekin lan ardurak banatu eta ikasturteari dagokion materiala sortu</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasmateriala sortzeko lan ardurak banatu irakasleekin, eta prozesua koordinatu.</li> <li>- Ikasmaterialen ekoizpen prozesuak bideratu: irakasleekin, Lankurekin.</li> </ul>

<p><b>Ikastolen Elkartea</b> Erakundeen arteko harremana zaindu eta elkarlan akordioa gauzatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bi erakundeen arteko koordinazioa ona izan dadin bideratu.</li> <li>- Ikastetxetako proiektua egoki kudeatu.</li> <li>- Eskolartekoaren antolaketaz arduratu.</li> <li>- Egitasmo guztien balorazioak jaso eta Ikastolen Elkarteari memoriak aurkeztu: ikastolen balorazioekin eta Eskolartekoaren memoriarekin.</li> </ul>
--	--

<b>Aisialdia eta Bertso Eskolak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Bertso Udalekuak</b> Bost txandak antolatu, begirale taldea berritu eta proiektuko parte sentituz, praktikaldiak eskainiz, eta gazteak Elkarteratuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialde ezberdinetan bost txandak bete eta gauzatzea.</li> <li>- Herrialdeetako kupoak bermatzea txanda guztietan (aniztasuna).</li> <li>- Bertso-eskoletako haurrek lehentasuna izatea txanda guztietan.</li> <li>- Udalekuak antolatzeko begirale, zuzendari eta sukaldariekin asteburu pasa bat antolatzea, atxikimendua areagotuz. Formazioa eskaini prestaketa asteburuan.</li> <li>- Bertso-udalekuen filosofiaren transmisioa egitea eta zuzendarien lantaldeak parte hartze zuzena izatea antolaketan eta asteburu horren dinamizazioan.</li> <li>- Udalekuak bukatzean hezitzaile izan diren denekin batera: zuzendari, begirale, sukaldari eta praktiketako gazteekin balorazio orokor bat egitea.</li> <li>- Udalekuetako argazkiak eta bideoak ateratzea eta partaideei helaraztea. Elkarteko bazkietze kanpainarekin lotzea.</li> <li>- Udalekutako argazki eta bideo muntaia, Elkarteko webgunean bistaratzeko eta komunikazio kanpainak egiteko baliatzea</li> </ul>
<p><b>Ahots Baten sormen egonaldia</b> Beste adierazpideetako gazteen parte hartzea handitzea eta elkarteekin elkarlana sendotzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sormen alor ezberdinetako gazteak erakarri egonaldira (proportzio orekatuan).</li> <li>- Egonaldia gazteentzat gustagarria izatea.</li> <li>- Bertsolaritzari dagokionez, Eskolarteko partaideak, bertso-eskoletako zein udalekuetako gazteak erakartzea.</li> </ul>

<p><b>Bertso Egunaren baitan EH-ko Helduen Bertso-eskolak inplikatu</b> Arrakastaz antolatu tokiko bertso-eskola inplikatzuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eguna arrakastaz antolatzea.</li> <li>- Antolaketarako herri horretako bertso-eskola inplikatzeari.</li> <li>- Topaketaren egitarauan herrialde horretako eta inguruko bertso-eskolen partaidetza bermatzea.</li> <li>- Sustapen sailarekin elkarlanean egunaren antolaketan aritzea.</li> </ul>
<p><b>Eskolartekoa</b> Herrialdeetako kanporaketak, Bertso-eskolen Egunak, eta EHko Finala indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolartekoaren eskutik, bertso eskolen eta Elkartearen arteko harremanak eta lan dinamikak estutu. Bertso-eskolekiko eta gazteekiko barne komunikazioa landu.</li> <li>- Ikastolen Elkartez elkarlana gauzatu, eta elkarlanean ari garela sentiarazi eta komunikatu. Bakoitzaren antolaketara ardurak eta finantziak egoki kudeatu.</li> <li>- Herrialdeetako eskolartekoari jarraipena egin: baliabide orokorrak bermatu (azpiegiturak), ekimenaren komunikazio orokorra egin eta aurrekontu bateratua kudeatu.</li> <li>- Euskal Herriko Eskolarteko jaia gauzatu.</li> </ul>

<b>Materiak didaktikoa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>www.bertsoikasgela.eus</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atariko erabiltzaileak kudeatu.</li> <li>- Albisteak eguneratu asteroko maiztasunez.</li> <li>- Bat-batekoa lantzeko atala garatu.</li> <li>- Urte honetan sortzen den material berria igo atarira.</li> </ul>
<p><b>www.bertsoeskola.eus</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Albisteak eguneratu asteroko maiztasunez.</li> <li>- Gaitegia atala elikatu 2019ko gaiekin.</li> <li>- Hasiberriak atala elikatu sortzen den material berriz.</li> <li>- Bertso jarriak atala elikatu. Historiako emakumeen bertsoak sareratu.</li> <li>- Ganbara atalean historiako bertsoaldi mitikoak gehitu, Xenpelar DZko ondaretik ekarriz.</li> </ul>

<b>Bat-batekoa lantzeko fitxak eta talde dinamiken fitxak sortu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle mintegiekin eta formazio eragilearekin elkarlanean, gelan bat-batekoa lantzeko fitxak eta talde dinamiken azalpen fitxak sortu.</li> <li>- Diseinu lanak egin Lankurekin.</li> <li>- Materiala sareratu hezkuntzako 2 atarietan.</li> </ul>
<b>Jolas kaxa sortu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle lantalde batekin, gelan bat-batekoa lantzeko jolas kaxa sortu.</li> <li>- Diseinu lanak eta produkzioa landu Lankurekin.</li> </ul>
<b>Ikasliburua berritu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle lantalde batekin, ikasliburua egokitu eta berritu.</li> <li>- Diseinu lanak eta produkzioa landu Lankurekin.</li> </ul>
<b>Historiako emakumeen bertsoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedapen taldearekin elkarlanean, historiako emakumeen bertsoen grabazio saioa prestatu. Hitzetik Hortzera saiorako eta materialgintzarako baliatu dadin.</li> <li>- Ikus-entzunezkoak sareratu hezkuntzako 2 atarietan.</li> </ul>

<b>Irakasleen formazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Hezkuntza arautuko irakasleentzat formazioa antolatu, ikerketa eta materialgintzarekin uztartuta.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Formazio eragileak bideratuta, ikasturtean zehar Elkarteko irakasleek egingo duten formazioa diseinatu eta gauzatu: herrialdeetako irakasle mintegien bidez zein EH mailako mintegien bidez.</li> <li>- HUHEZlrekin irakasleen formazioan eta metodologiaren ikerketan egin genezakeen elkarlana zehaztu eta gauzatu.</li> <li>- Irakasleen formazioa uztartu metodologiaren ikerketarekin eta materialgintzarekin.</li> <li>- Herrialdeek 2020an irakasleentzat antolatzen dituzten formazio saioen berri zabaldu guztiei.</li> </ul>
<b>Formazioaren finantziak adostu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialdeekin, formazio gastuak partaide bakoitzak nola asumituko dituen adostu eta gauzatu.</li> </ul>

<b>Ikerkuntza /Mintzola</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Datu bilketa</b>	Ikastetxeen datu basea eguneratu.
<b>Metodologiaren ikerketaz jarraitu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Formazio eragilea irakasle mintegien laguntzaz egiten ari den metodologiarekin ikerketarekin jarraitu.</li> <li>- Erakundeekin elkarlana landu, proiektua ezagutarazi eta finantziario iturriak bilatzeko.</li> </ul>
<b>Ahostegunak</b>	EHU Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean, "Ahostegunak" egitasmoa gauzatu Euskaltzaindiaren laguntzarekin, Unibertsitatean. Sormen saioetara alor ezberdinetako gazteak erakarri.

<b>Feminismoa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Ahalduntze Bertso Eskola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019/2020 ikasturtea gauzatu (V. edizioa). Bertso-eskolaren kudeaketa lanak egin. Edizio honen balorazioa egin antolakuntza taldeaz eta partaideekin.</li> <li>- Datorren ikasturtetik aurrera, Ahalduntze Bertso-eskola Feminismoa sailetik bideratu dadin, trasbasea egin koordinatzaileari. Bertso-eskolaren oinarriak transmititu.</li> </ul>
<b>Materialgintza</b>	Historiako emakume bertsolarien bertsoak musikatuta eta ikus-entzunezkoan prestatu, hezkuntzako 2 atarietan sareratuz.
<b>Bertso Udalekuak</b> Txanda guztietan hezkidetza tailerrak bermatu	5 txandatan hezkidetza zehar lerro bezala landuko dela bermatu. Txandatan zehar hezitzaile taldeek baliatu ahal izateko jolasak, dinamikak helarazi.

## 4. SUSTAPENA

<b>Urteko helburuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzetik Hartzera, Txapelketako finalen ekoizpena, Bertsoa.eus eta irrati zerbitzuak gauzatu.</li> <li>- Historiako emakume bertsolarien bilduma egin</li> <li>- Hedapen sailaren bideragarritasun funtzionala eta ekonomikoa landu eta erabaki</li> <li>- Autofinantzaketa: Bertsoa.eus-en bideo hasieran publia sartzeko plataforma jarri</li> <li>- ETBrekiko elkarlan orokorrerako markoa landu eta Hedapen alorra ere landu.</li> </ul>

<b>Kudeaketa orokorra</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Sustapen-eragilearen ardura izango da sailaren kudeaketa orokorra. Hauek izango dira bere zeregin nagusiak.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragile postuan egokitu eta eraginkorra izan.</li> <li>- Sustapen batzordearen kudeaketa hilabetero</li> <li>- Sustapen batzordearen eraberritze prozesua gauzatu.</li> <li>- Koordinazio batzordea: hamabostean behin</li> <li>- Kudeaketa taldea: hilean behin</li> <li>- Herrialdeak eta sailak: Proiektu komunak aurrera atera, eta laguntza eman.</li> <li>- Sustapenaren komunikazioa: Bertsozalea/Barne Orria</li> <li>- Urteko memoriak eta egitasmoak</li> <li>- Kanpo-harremanak</li> <li>- Batzar Nagusia</li> <li>- Administrazioa: aurrekontu orokorra</li> </ul>

<b>Erreminta bateratuak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Lanku</b> Plataforma digitalaren garapena. Egile eskubideetan aurrera pausoak. EKKI	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plataformaren garapenean aholkularitza eman.</li> <li>- Sustapenetik, eta batez ere bertsogintzatik, plataformak zein ekarpen egin ditzakeen aztertu.</li> <li>- Bertsogintzako foro bat nola sortu aztertu, sortzaileei begira.</li> <li>- EKKI-rekin harremanak estutu eta gure ekarpenak egin: Tarifakzioak, bertsoen identifikazioa.</li> <li>- Bertsolarien ordezkariak egiteko elkarteak sortu eta kudeatzeko kontratu bat sinatu EKKI-rekin</li> <li>- Bertsoak transkribatzeko modu eraginkorrak bilatu</li> </ul>
<b>Publizitatea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iragarki politikan irizpideak ezarri</li> <li>- Iragarki euskarriak landu: Berriak sortu eta dauzkagunak berpentsatu.</li> </ul>
<b>Bertsosarrerak</b>	Sarrera salmenta eta balidazio sistema berria aztertu eta ezarri.

<b>Egitasmo zehatzak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Txapelketak</b> BBT20 Xilaba 2020 BTN21	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019 txapelketen balorazioak jaso eta aztertu ekarpenak.</li> <li>- Bertsogintzan eman nahi den saltoa emateko, lurraldeetako txapelketetan lehendabiziko erabakiak proposatu.</li> <li>- Egutegiaren egokitasuna aztertu lurraldeekin.</li> <li>- Aurre lanketa egin: Kokapen fasea, finalaren erabakia eta talde antolatzailea zehaztu.</li> <li>- Txapelketaren egitura, herriak, egutegia, araudia eta epai irizpideak zehaztu.</li> </ul>
<b>Bertso-Eguna</b> Bertso Eguna 2020 Bertso Eguna 2021	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso Eguna 2020 gauzatu eta likidatu aurreikuspenen barruan.</li> <li>- Bertso Eguna 2021 antolatu</li> <li>- Aurrekontua gainbegiratu eta proposamen berria egin</li> </ul>

<b>Eskolartekoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lurraldeetako egutegiak koordinatu eta sarien politikan proposamen berria egin</li> <li>- Euskal Herriko finala antolatu</li> </ul>
---------------------	--

<b>Plaza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Azterketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaza azterketaren arrazoiak, metodologia eta diseinua egin</li> <li>- Lehentasunezko azterketak gauzatu.</li> <li>- Azterketen erabilera ziurtatu</li> </ul>
<b>Eragin</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiru zehar lerroak plazan txertatzeko erabakiak hartu: Protokoloa idatzi eta Lankuko egunerokotasunari egokitu.</li> <li>- Elkarte kanpoko ekimenetan pedagogia egin.</li> </ul>

<b>Bertsogintza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Gizonezkoen Bertso Eskola Feminista</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso-eskolaren kudeaketa egin</li> <li>- Formakuntzaren antolakuntzan parte hartu eta saioak antolatu</li> <li>- Balorazioa egin eta jarraipenaren inguruko gogoeta abiatu</li> </ul>
<b>Epaile taldea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Moodle plataforma kudeatu eta ariketak diseinatu</li> <li>- Emaizten analisia egin eta komunikatu</li> <li>- Epaileen jarraipena eta balorazio fitxak egin</li> <li>- Euskal Herri mailan zein lurraldeetan talde kohesiorako eta trebakuntzarako dinamikak proposatu.</li> </ul>
<b>Gai-jartzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai-jartzaile taldea eguneratu. Kide berrien sarrera eta trebaketa bermatu.</li> <li>- Gai-jartzaile taldearen formakuntza</li> </ul>



	- Txapelketetan eta plazan ariko diren gai-jartzaileekin dinamikak burutu.
<b>Bertsolariak</b>	- Sortzaileen baldintzak hobetzeko ahalegina egin - Egile eskubideak EKKI-ra pasatzeko aukera landu eta komunikatu - Plazan dabilzan bertsolarien dinamikak aurrera eraman

<b>Kulturarteak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Eskuarteak ditugun ekimenak gauzatu</b>	Quebec, Jaialdia, Bartzelona, Galway eta Poznan/Berlin
<b>Ekimen berriak landu</b>	Queretaro, Bartzelona txapelketa, Vilanueva Tapia, Trovo Murcia

## 5. LANKU KULTUR ZERBITZUAK

Helburu zehatzak	Ebaluazio adierazleak
<p><b>Enpresa kudeaketa</b>                      laz hasitako bideari jarraituz sail bakoitzean aurreikusitako proiektuen zehaztasuna dedikazio orduetara eta diru sarreretara eramateko ariketa egin.                      Plataforma digitala. 2020ean garapenaren zati bat martxan jarri.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtean zehar proiektu bakoitzaren kontrola ondo eramatea. Lan egiteko moduetan aurrerapausoa eman eta Enpresan kudeaketa eraginkorragoa lortzea.</li> <li>- Tresna garatuko duen enpresa informatikoa hautatu eta zati bat garatu. Gipuzkoako Foru Aldundian (Industria sailean) plataforma informatikoaren garapenerako diru laguntzak aztertu eta eskatu.</li> </ul>
<p><b>Bertso saioak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolariekin eta gai jartzaileekin Mintegia burutu. Bertso saioen tarifakazioa eguneratu.</li> <li>- Egungo plazei eutsi eta Lanku bidez kudeatzen den kopurua igotzeko ahaleginean segi.</li> <li>- 2018-2030 Elkarrearen gogoetan atera diren lehentasunak markatu plazari dagokionean.</li> <li>- Adin adin bezalako proiektu espezifikoekin jarraitu eta zabaldu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mintegia martxoaren hasieran izango da. Gai gehiago ere landuko dira.</li> <li>- Hilabetez hilabete bertso saioen kopurua igo eta hobeto kudeatu.</li> <li>- EHBEko bertsogintza eragilearen funtzioetako bat izango da.</li> <li>- Adin adin, Gipuzkoan adinekoen egoitza gehiagotara iritsi. Bizkaian ahalegintzen segi. Ipar Euskal Herrian beraien aldetik egitasmoa garatzen ari dira. Nafarroan ahalegina egitea zentro batzuetan.</li> </ul>
<p><b>Emanaldi bereziak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekoizpen propioak ekoitzi Lanku Bekaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzei esker.</li> <li>- Kultur programazioetara iristeko ahalegin komertzial berezia egin.</li> <li>- 2020rako IV Lanku Beka atera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Orainmenean</b> emanaldia maiatzean Bilboko Euskararen etxeko H(izk)ibridoak egitarauaren barruan estreinatuko da.</li> <li>- <b>Urpekakariak</b> haurrentzako emanaldia estreinatuko da udaberrian.</li> <li>- Emanaldi kopurua igo.</li> <li>- Sortzaileen artean motibazioa sortzeko lanketa bat egin.</li> </ul>
<p><b>Argitalpenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2019ko liburua argitaratuko da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Martxoan argitaratuko da.</li> </ul>

<p>- Argitalpen arloan EHBEen hausnarketa eman eta bidea zehaztu.</p>	
<p><b>Elkarteei lanak</b></p> <p>- EHBE: Diseinua: Hezkuntza Arautua materialgintzan Mundu bat bertso liburu bateratua eta Jolas Kutxa, Bapatean...</p> <p>Ekoizpena: Eskolarteko finala</p> <p>- Nafarroa: Bardoak Diseinua: Irudi berria Ekoizpena: Finala</p> <p>- BBT20: Diseinua: Udabarria bertsoan (luzerako irudia) eta BBTko irudiaren diseinua eta euskarri ezberdinak. Ekoizpena: Finalurrekoak eta finala.</p> <p>- Xilaba: Irudia: Diseinua Ekoizpena: Finala</p>	<p>- Bezeroen beharrak ase.</p>
<p><b>Egile Eskubideak</b></p> <p>- Bertsolariei zerbitzu ona eskaini. - SGAE: eraginkortasuna lortzen jarraitu.</p> <p>- <b>EKKI: Eragiletza eta bitartekoak jarri beraien lanean hasteko</b></p>	<p>- Bertsolarien beharrak ase. - SGAEen aurrera pausuak lortu - EKKIren Kontrol Batzordean parte hartu. - EKKIn eragiteko gaitasuna lortu. - EKKIrekin lanean hasteko bitartekoak jarri.</p>

## 6. HEDAPENA

<b>Urteko helburuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzetik Hortzera, Txapelketako finalen ekoizpena, Bertsoa.eus eta irrati zerbitzuak gauzatu.</li> <li>- Historiako emakume bertsolarien bilduma egin</li> <li>- Hedapen sailaren bideragarritasun funtzionala eta ekonomikoa landu eta erabaki</li> <li>- Autofinantzaketa: Bertsoa.eus-en bideo hasieran publia sartzeko plataforma jarri</li> <li>- ETBrekiko elkarlan orokorrerako markoa landu eta Hedapen alorra ere landu.</li> </ul>

<b>Kudeaketa orokorra</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Hedapen-eragilearen ardura izango da sailaren kudeaketa orokorra.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragilearen ordezkapena + taldearen berrantolaketa</li> <li>- Lan-taldearen dinamizazioa</li> <li>- Kudeaketa batzordea: hamabostean behin</li> <li>- Koordinazio batzordea: hamabostean behin</li> <li>- Komunikazio taldea: hilean behin</li> <li>- Komunikazioa-Xenpelar-hedapena: gaiaren arabera koordinazioa</li> <li>- Herrialdeak eta sailak: egitasmoen arabera (batez ere Txapelketen hedapena adosteko)</li> <li>- Hedapenaren komunikazioa: Bertsozalea/Barne Orria</li> <li>- Urteko memoriak eta egitasmoak</li> <li>- Kanpo-harremanak (EITB, Etxepare Euskal Institutua, Tabakalera...)</li> <li>- Batzar Nagusia: hedapen sailaren urteko egitasmoa aurkeztu</li> <li>- Administrazioa: aurrekontu orokorra</li> </ul>

<b>Gogoetako Hedapen lehentasunak abian jarri</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoeta batzordea + gogoetaren ondorioak</li> <li>- Hedapen sailaren berrantolaketa landu. Borondatezko taldearen osaketa, lan talde profesionalaren berrantolaketa, lan funtzionamenduak landu, Etorkezun ikuspegian finkatutako Hedapen helburuak kontuan izanda.</li> </ul>
---	---

<b>Bertso-saioen grabazioak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Bertsolaritzaren plazaren bilketa eta hedapena</b> Bertsolarien plazaz plazako jarduna grabazioetan jaso eta gure hedabideetan zabalduko dugu 2019an:</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kopuruak: gutxienez astero bi saio grabatuko ditugu.</li> <li>- Irizpideak: herrialdeak, saioen formatuak, genero-ikuspegia eta belaunaldiartekotasuna izango dira saioen hautaketarako irizpideak.</li> <li>- Kalitatea: saioak kalitate altuan grabatuko ditugu, Blackmagic kamerekin. Irailetik apirilera (Hitzetik Hortzeraren denboraldian), guztiak lau kamerekin eta apiriletik irailera saioen arabera kamera batekin, birekin, hirurekin edo laurekin. Zuzeneko errealizazioa egin behar dugun kasuetan, Trikaster mahaia erabiliko dugu.</li> <li>- Antolatzaileak: saioen grabaketetarako antolatzaileekin harremanetan jarriko gara. Bitartekaria Lanku denean bere bidez, eta gainontzean beste bertso-eragileen bidez.</li> <li>- Bertsolariak: bertsolarien jardunaren zabalkundea egingo dugu eta garrantzitsua da zabalkunde horrek bertsolarien oniritzia izatea. Grabazioen aurretik beraiekin jarriko gara harremanetan: grabatzera joango garela jakiteko eta zerbait hedatzea nahiko ez balute guri esateko konfiantza izateko.</li> <li>- Bertso-saio hauen zabalkundea egingo dugu gure medioetan: Bertsoa.eus atarian, Hitzetik Hortzera telebista-saioan eta lankidetzan ari garen irratietan. Aurrerago zehaztuko ditugu hedabide bakoitzeko zabalkundearen ezaugarriak.</li> </ul>

<p><b>Bertsolaritzaren mugimenduaren bilketa eta hedapena</b>  Bertso-saioez gain, <b>bertsolaritzaren bueltako beste hainbat egitasmo</b> ere antolatzen dituzte bertso-eskolek eta gainontzeko eragileek: kultur eta euskara elkarteek, erakunde publiko zein pribatuek, norbanakoek...  Egitasmo horien artean daude: bertsolari gazteen sariketak, bertso-paper lehiaketak, emanaldi bereziak...</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oraindik 2019ko egutegia eskuartean ez badugu ere, egitasmo <b>horien jarraipena</b> egingo dugu gure hedabideetan. Batik bat Bertsoa.eus atarian eta ahal denean, Hitzetik Hartzera telebista-saioan:</li> <li>- Bertsoa.eus atariaren kasuan, albisteak eta elkarrizketak baliatuko ditugu horretarako.</li> <li>- Hitzetik Hartzera telebista-saioaren gidoiak ahalbidetzen duen kasuetan txertatuko ditugu egitasmo horiek.</li> </ul>
--	---

<b>Gure hedabideak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Hitzetik Hartzera</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020an 28 Hitzetik Hartzera izango dira, bi denboral-ditakoak zenbatuta. 26 gai landuko ditugu eta bi HH berezi Txapelketako finalakoak.</li> <li>- Elkarrizketak: gidoiak hala eskatzen duenean, Eider Perezek elkarrizketa egingo ditu.</li> <li>- Apiriletik uztaileira 2020-2021 denboraldia landuko dugu</li> <li>- <b>Taldekako Txapelketek tratamendu berezia</b> izango dute Hitzetik Hartzeran:</li> <li>- <u>Xilaba Txapelketa:</u></li> <li>- <u>Nafarroako Bertsolari Txapelketa</u></li> </ul>
<p><a href="http://www.bertsoa.eus">www.bertsoa.eus</a>  Bertsoa.eus-en bertsoaldiak audio bidez entzuteko aukeraz aztertuko dugu aurten.  Eta orain arte bezala, eguneroko jarioa izango du gure atariak:</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Bertso-saioak:</b> astero gutxienez bi bertso-saiotako bertsoaldi onenak jarriko ditugu ikusgai.</li> <li>- <b>Albisteak/erreportajeak:</b> egunero gutxienez albiste edo erreportaje bat argitaratuko dugu.</li> <li>- <b>Elkarrizketak:</b> hamabost egunean behin bertsolari edo bertso-eragileren bati egindako bideo-elkarrizketa luzea jarriko dugu ikusgai.</li> <li>- <b>Bereziak:</b></li> <li>- <b>Taldekakoak:</b> Nafarroako Bardoak, Arabako Kuadrilla Artekoa</li> <li>- <b>Buruz burukoak:</b> Bizkaiko Txapelketa eta Xilaba</li> <li>- <b>Zuzenekoak:</b> Bizkaiko eta Xilabako finalak zuzenean eskainiko ditugu</li> </ul>

<b>Irratiak</b> Euskadi Irratiarekin eta beste tokian tokiko irratiekin ditugun hitzarmenekin jarraituko dugu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Euskadi Irratia:</b> 2021rako hitzarmena landu eta sinatu.</li> <li>- <b>Tokian tokiko irradiak (2017-2021):</b> Xorroxin irratia, Bilbo Hiria irratia, Hala Bedi irratia, Ataria Irratia eta Arraio Irratiarekin lankidetzan jarraitu</li> <li>- Gure egitasmoen audiok zerbitzatu behar ditugu irradi guztietara</li> </ul>
<b>Sare Sozialak</b>	Hedapen-edukien komunikazioa

<b>Ekoizpen bereziak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Gure egitasmoari edo bertsolaritzari lotutako Ekoizpen berezien sorkuntza.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- ETB - Xilabako Bertsolari Txapelketaren finalaren emisioa</li> <li>- ETB - Bizkaiko Bertsolari Txapelketa finalaren zuzeneko emisioa</li> <li>- Etxepare Euskal Institutua - Mundu bat ahoz aho: azpidatziak</li> <li>- EHBE - Gogoeta gizarteratzeko bideoa</li> </ul>
<b>Komunikazio eta dokumentazio sailarekin koordinatuta, Bertsozale Elkarteko egitasmoen jarraipena egingo dugu.</b>	<p><b>Sustapena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso Eguna (urtarrilak 18)</li> <li>- TXAPELKETAK (Araba eta Nafarroako Taldekakoak)</li> </ul> <p><b>Transmisioa:</b></p> <p><b>Eskolartekoak:</b> herrialdeetako eta Euskal Herriko finalak grabatu eta gure hedabideetan zabaldu (Bertsoa.eus eta irradiak)</p> <p><b>Hezkuntza Arautua:</b> grabatuko dugu ikasturte amaierako jaialdiren bat? Ikasturte hasierako informazioaren albiste argitaratuko dugu irailean.</p> <p><b>Udalekuak:</b> izen-emateko albiste argitaratuko dugu martxoan eta beste albiste bat ekainean txanden informazioarekin.</p> <p><b>Ahots Baten Sormen egonaldia:</b> urrian albiste izen-emateko informazioarekin eta azaroan beste bat egonaldiaren informazioarekin (abenduan iazko irudiekin bideotxoren bat Bertsoa.eus-en?)</p> <p><b>Bertso-eskolak.eus atari berria:</b> koordinazio transmisio sailarekin</p> <p>BERTSO-ESKOLAK:</p> <p><b>Ikerkuntza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udako ikastaroak</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolamintza</li> <li>- Ikerketa kontratuak eta sariak</li> <li>- Bapatean 2019</li> <li>- Uni-bertsoan</li> </ul> <p><b>Xenpelar Dokumentazio Zentroa</b> XDZ jardunaldiak: maiatzean</p> <p><b>Herrialdeetako egitasmoen Hedapena:</b>  <b>Araba:</b> Arabako Kuadrilla artekoa; Arabako Eskolartekoa; Bertsoa Bizi Gazte:  <b>Bizkaia:</b> Bizkaiko Txapelketa, Udaberriko eta udazkeneko faseak; Bizkaiko Eskolartekoa; BBK sariketa.  <b>Gipuzkoa:</b> Gipuzkoako Eskolartekoa  <b>Nafarroa:</b> Nafarroako Bardoak; Nafarroako Esko-lartekoa; Bertsoaroa 2019 (urria-azaroa); Bertsokabi sariketa 2019 (udazkenean)  <b>Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarre:</b> Xilaba Taldekakoa; Bertsularien Xapelgoa; Hernandorena sariketa.</p>
--	---

<b>Komunikazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>



<p><b>Gure hedabideen eta beraien argitaratzen ditugun edukien zabalkundea</b></p>	<p><b>Sare sozialak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Facebook:</b> Bertsoa.eus eta Hitzetik Hortzeraren orriak eguneratzen jarraituko dugu.</li> <li>○ <b>Twitter:</b> Bertsoa.eus eta Hitzetik Hortzeraren orriak eguneratzen jarraituko dugu.</li> <li>○ <b>Youtube:</b> Youtuberako estrategia landuko dugu Komunikazio Taldearekin batera.</li> </ul> <p><b>Bertsozale.eus:</b> Astero, Bertsoa.eus atariaren jarioaren eta Hitzetik Hortzeraren edukien berri ematen jarraituko dugu</p> <p><b>Prentsa-oharra:</b> Hedabideei Hitzetik Hortzeraren edukien berri ematen jarraituko dugu astero</p> <p><b>Euskal Irratiak:</b> Hamabost egunean behin Euskal Irratiek tarte bat eskaintzen digute Bertsoa.eus-eko edukien berri emateko.</p>
--	---

<b>EITB-EHBE elkarlana</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>EITB-EHBE Elkarlan marko orokorra berritu</b>	<p>Bertsolaritzaren hedapen elkarlan orokorra</p> <p>EiTBrekiko hitzarmen marko orokorra landu. 2020an proposamena osatu eta EiTBrekin lantzea da helburua.</p>

## 7. IKERKUNTZA

### Urteko helburuak

- Mintzolaaren egitura birpentsatu. Zeharlerrotasuna eta funtzioak
- Gizarte eragile eta erakundeekin harreman sarea hedatu ikerkuntza eragitea helburu
- Ikerketen lanketa aplikazioa helburu.
- UIK eta UEUko Udako Bertso Eskola antolatu
- Ikerkuntza eragileekin eta ikertzaileekin harreman sarea ehundu eta zaindu.
- Ahozko Kultur Ekosisteman eragin, ahozkotasuna mugimendua eta sorkuntza bezala ulertuta.
- Doinutegia eguneratu.
- Haitzondo egitasmoa herrialdeetako eragileekin koordinatu.
- Ikerkuntzaren egituraren berrantolaketa eta sail zein herrialdeekin harreman zuzena sendotu

<b>Sailaren kudeaketa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Kudeaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmoa zehaztu eta bere garapena zaindu.</li> <li>- Ikerkuntza taldeen funtzionamendua bermatu</li> <li>- Doinutegia batzordearen funtzionamendua eta bertsolaritza ikertzaileen topaketak bermatu</li> <li>- Sailekin zein herrialdeekin koordinatu.</li> <li>- Elkargunea dinamizatzen lagundu gainontzeko sailekin batera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020ko egitasmoa zehaztu eta ZB-ri proposatu.</li> <li>- Kudeaketako bileretan parte hartu</li> <li>- Koordinazioko bileretan parte hartu</li> <li>- Kulturarteko Batzordean parte hartu.</li> <li>- Egitasmoaren garapena jarraitu eta zaindu.</li> <li>- Sailaren aurrekontua kudeatu.</li> <li>- Urteko memoria ZB-ri aurkeztu urte amaieran.</li> <li>- Urtean 10 ikerkuntza bilera antolatu, gai-ordenarekin eta akta jasoaz.</li> <li>- Gainontzeko sailekin zeharkako egitasmoetan aritu.</li> <li>- Herrialde, sail zein orotariko ikertzaileei ikerkuntza zalantzei aterabideak eskaini.</li> <li>- Iker taldean ordezkaturik ez diren herrialdeetako partaidetza handitu, harremana bermatu.</li> <li>- Bertsolaritza ikertzaileen bi bilera deitu: lan bilera, aurkezpen bilera...</li> <li>- <i>BertsoZale</i> berripaperean eta Barne Buletinean parte hartu.</li> </ul>

<b>Ikertegia</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<p><b>Formakuntza</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerketa eragileekin eta ikertzaileekin harreman sarea ehundu.</li> <li>- Informatika – bertsolaritza ikertzen duten alderdiekin hitzarmena(k) berproposatu eta gauzatu.</li> <li>- Ikertzaileekin bi batzar-otordu egin: martxoan eta azaroan (Mintzola Mintegia).</li> <li>- Bertsolaritza helburu edo bitarteko gisa harturik bertsolaritza ikertzen edo ikertuko duten ikertzaile eta ikerketa erakundeei aholkularitza zerbitzua eta laguntza eman. 2020rako aurreikusitakoak:</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolaritza garaikidea eta emakumeari buruzko ikerketa. Bertso-eskolak gizarteratze prozesuetan duen paperaren azterketa burutzea, bereziki emakumeek lidergoari egiten dioten ukazioari begira. <ul style="list-style-type: none"> <li>o <b>Jone Miren Hernandez</b> (EHUko antropologia irakaslea) ari da ikerketa egiten.</li> <li>o <b>Ainhoa Aizpurua</b>: "Bertsolaritzaren prosodia". Doktore tesia.</li> <li>o <b>Oihana Iguaran</b>: "Bertsoaren Agenda. <i>Agenda setting</i>ak bertsolaritzaren diskurtsoan duen eragina". Doktore tesia.</li> <li>o <b>Beñat Romera</b>: Bertsolaritza eta irudiaren arteko lotura. Doktore tesia</li> <li>o <b>Jon Martin</b>: "Xabier Leteren bertso, olerki eta kanten analisisa" Doktore tesia.</li> <li>o <b>Xabier Sarasola</b>, ahots automatikoa sortzeko tesia egiten ari da, horretarako bertsolaritza datu baseak darabiltza.</li> <li>o <b>Kepa Matxain</b>: "Ahozko hizkeraren balioa bertso kanonaren eraikuntzan: Xabier Amurizatik Maialen Lujanbiora (1980-2017)".</li> <li>o <b>Jon Gurrutxaga</b>: "Nazio-identitatea, nazio-gatazka eta diskurtsoaren bilakaera Bertsolari Txapelketa Nagusian (2001-2017)"</li> <li>o <b>Maddi Soroa</b>: kantaerari buruzko ikerketa.</li> </ul> </li> </ul>
<p><b>Ikerketa: Oinarrikoa eta aplikatua</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerkuntza planean lehenetsitako ikergaien ikerketa sustatu ikerketa eragileen artean.</li> <li>- Ikerketa kontraturako deialdia egin Mikel Laboa Katedra eta EHUrekin batera <b>Ahozko Kultur Sorkuntzari buruzko DOKTORE TESI<sup>1</sup> bat egin dadin</b>. Deialdi horretara aurkezten diren proiektuen artean ikerketa planeko ikergaiak lehenetsiko dira.</li> <li>- Master bukaerako ikerketa proiektu edo ikerketa monografiko proiektuetarako 2 sariren deialdia egitea (bakoitza 2000 eurokoa). Ikerketak Ahozko Kultur Sorkuntzari buruzkoak izango dira.</li> <li>- MLK-rekin batera, Ahozko Kultur Sorkuntzari buruzko GRALik onena saritzeko (500 €) deialdia egingo dugu.</li> <li>- Kilometroak 20, Zubimusu ikastola eta Teodoro Hernadoren elkartearekin bertsolaritza ikerketzeko 3000 euroko beka deitu eta kudeatu.</li> </ul>

<sup>1</sup> Ahozko Kultur Sorkuntza: bertsolaritza, antzerkigintza, kantugintza, kontalaritza eta ahoz emateko sortzen den kultura.

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakunde, Euskaltzaindia eta beste gizarte eragileekin elkarlanean, haien arloarekin zerikusia duten ahozko kultur sorkuntzako ikerketak sustatu.</li> <li>- Ezagutza akademikoa ez denaren ustiaketa (<i>Bapatean</i> adb.)</li> </ul>
<b>Ikerketen hedapena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerketak egokitu, kontrastatu eta aplikatu kasuan kasuko sailean.</li> <li>- Hartzaileen arabeko jakintzaren dibulgazioa sustatu.</li> <li>- Ikerketen argitalpen aukerak aztertu.</li> <li>- 2020ko Udako Ikastaroak gauzatu</li> <li>- 2021ko Udako Ikastaroak diseinatu</li> <li>- UEUren baitan 2020 Udako Bertso Eskola gauzatu.</li> <li>- UEUren baitan 2021 Udako Bertso Eskola diseinatu.</li> </ul>
<b>Ikerketen komunikazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MINTZOLA MINTEGIA antolatu ikerketa kontratuak eta proiektu sariak deitzeko lankide ditugun erakunde eta elkarteekin elkarlanean; Mintzolak zuzenean eragindako bertsolaritzari buruzko tesi edo ikerketen aurkezpena bideratu eta antolatu, ikertzaileen arteko harremana ere helburu hartuta.</li> <li>- <i>Bapatean 2018</i> antologiaren argitalpenean parte hartu.</li> </ul>
<b>Kulturarteak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EAEko administrazioak bertsolaritza ondare ez material izendapena lantzen segi.</li> <li>- Kanpoko gonbidapenei, izan akademiko edota sustapeneko, erantzuteko protokoloa landu Sustapen sailarekin.</li> <li>- UNESCOren ondare izendapenari berrekin Koordinazioaren arabera.</li> </ul>

<b>Egitura</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Egitura</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteko Ikerkuntza <b>egitasmoari ikuspegi zabalez begiratu.</b></li> <li>- Herrialde eta bertsolaritzako eremu ezberdinen <b>ordezkaritza zabalago</b> bateko ikerkuntza talde bat osatu.</li> <li>- Martxan ditugun proiektuen (<i>Bapatean</i>, <i>Doinutegia</i>, <i>Haitzondo</i>...) <b>funtzioak eta irizpideak talaia askotatik berrikusi.</b></li> </ul>

	- Beste sailekin edota bertsolaritzako zein bertsolaritzatik kanpoko eragileekin <b>elkarlanean aritzeko guneak</b> sortu, ikerkuntza ikuspegia ardatz izanik (Udako Ikastaroak eta abar).
--	--

<b>Elkargunea</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Elkargunea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarguneari buruz hausnartu Mintzolako egituraren baitan. Elkargunea egun erdiko dedikazioko eragile batekin hala irudikatu izan dugu:</li> <li>- Batzorde bat: Ahozko Kultur Sorkuntzako eragileekin elkarriketak eduki ditzan, genero bakoitzeko (transmisio, sustapen, dokumentazio-ikerkuntza) egoera jakite aldera, eta ahalaz gara daitezen.</li> <li>- Ahozko Kultur Sorkuntzako eragileekin egitasmoak diseinatzeko eta gauzatzeko aukerak aztertu (Ahoa Bete Hots?) edo Bertsozale Elkarteak dituenetan txertatzeko paradak ikusi (Bertso Eguna, Udaleku, Bertso Eskolen Topaketa, Ahots baten, UIK, Ahostegunak...).</li> </ul>

<b>Ikerkuntza saila eta herrialdeak</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>
<b>Haitzondo datu basearen funtzionamendua diseinatu eta herrialdeen eskutik abiatu eta koordinatu.</b>	Herrialdeetako fitxen osaketa bideratu, herrialdeko eragile edo ikerkuntza arduradunen bidez eta ebatzitako irizpideen arabera.
<b>Grabazio sarearen funtzionamendua diseinatu eta herrialdeen eskutik abiatu eta koordinatu.</b>	Herrialdeetako bertso saioetako grabazio sarea bideratu, herrialdeko eragile edo ikerkuntza arduradunen bidez eta ebatzitako irizpideen arabera.
<b>Herrialdeekin harremana</b>	Herrialdeekin harremana sendotu; ikuspegiak eta beharrak partekatu.

## 8. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

### Urteko helburuak

- Bertsozale elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesuan parte hartu, lantaldearen koordinazioa berrantolatu eta 2020-2030 aldirako lan-ildoen txostena osatu.
- 2020ko egitasmoari 1998ko lantaldearekin erantzungo zaio, hortaz gutxiengo zerbitzuak bermatu ahal izango dira soilik.
- BDBren ezinbesteko garapen teknologikoa burutu fitxategi eta dokumentazio egituraketan.
- Bertsolaritzaren corpusaren osaketan elkar tearen sail eta herrialde guztiek duten partehartzea eta arduraren sozializatzea.
- Sailekin elkarlanean ikus-entzuneko bildumaren digitalizazio beharren azterketa eta planifikazioa egin.

<b>Kudeaketa orokorra</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>XDZren kudeaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020ko egitasmoa zehaztu eta ZBri proposatu</li> <li>- Urteko balorazioa eta memoria ZBri aurkeztu urte amaieran.</li> <li>- Egitasmo eta aurrekontuaren garapena jarraitu</li> <li>- Barne orrian eta <i>BertsoZalean</i> XDZren berri eman</li> <li>- Bertsolaritzaren eta BEren Sail eta Herrialdeetako beharrak detektatu, aztertu, lanak antolatu eta elkarlanean bideratu:</li> <li>- Iker taldeko bileretan parte hartu.</li> <li>- Kudeaketa eta Koordinazio taldeetan parte hartu eta beharrianak detektatu.</li> <li>- Bertsozale elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesuan parte hartu.</li> <li>- XDZren koordinazio ardurak berrantolatu.</li> <li>- XDZren talde-funtzionamendua sustatu eta kudeatu: lanen ikuspegi orokorra denek txertatzea bultzatu</li> <li>- Bertsozale Elkartearen gogoeta prozesuaren emaitzak eta XDZren barne gogoeta abiapuntutzat hartuz 2020-2030 aldirako lan ildoak zehaztu.</li> </ul>
<b>XDZren oinarrizko funtzionamendua ziurtatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- XDZrako oinarrizko funtzionamendua eta lan-taldearen finantziakzioa ziurtatu: txosten eta aurkezpenak prestatu.</li> <li>- Erakunde ezberdinei XDZren balioa aurkeztu eta finantziaziorako bideak landu.</li> </ul>
<b>Mintzola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mintzola Ahozko Lantegiak bere egoera berrian izango dituen dokumentazio beharrei erantzungo zaie.</li> <li>- Kulturarteak:</li> <li>- Kulturarteak Mapan eguneraketak egingo dira</li> <li>- Liburutegian ikerketen eguneraketak egingo dira</li> </ul>
<b>Langileen formazioa ziurtatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behar eta eskaintzaren arabera eta baliabide ekonomikoek eskaintzen duten aukeren arabera langileen formazioa bideratu.</li> </ul>
<b>Beste informazio zentro eta ikerketa erakundeekin harremanak lantzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurretik egindako harremanak zaindu: Renoko Euskal Liburutegia; HABA liburutegia; Koldo Mitxelena Liburutegia; Eresbil; Labayru; Herri Musikaren Txokoa, Topic</li> </ul>



<b>Bilketa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>Bertsolaritzaren Funtsa: Oinarrizko funtsaren bilketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- XDZren oinarrizko egitura osatzen duten, eta bertsolaritzak egunero sortzen duen dokumentu eta datuak bildu, sail eta herrialde eta bertsozaleekin elkarlanean.</li> <li>- Bertsolaritzaren corpusa osatzeko prozesuan sail eta herrialdeek duten parte hartzea eta ardura azaldu eta sozializatzeko lanak burutuko da, etorkizuneko bilketa ziurtatzeko: Bapatean eta Txapelketetako bertsogintzako corpusak.</li> </ul>
<b>Eremu hurbilarekin oinarrizko harremanak mantendu eta sendotzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteko sail eta herrialdeek dokumentazioa jasotzeko harremanak bideratu eta behar denetan formazioa zabaltzeko:</li> <li>- Grabazio-sarea indartu</li> <li>- Bilketa aniztasuna bermatzeko bitartekoak jarri</li> <li>- Transkripzio eta antologiaren bilketa bultzatu</li> <li>- Argazkien bilketaren garrantzia azaldu</li> <li>- Saioren informazio-bilketaren garrantzia azaldu</li> <li>- Beste dokumentazio-bilketa ere sustatu</li> <li>- Hitzetik Hortzerak sortutako materiala eskuratu</li> <li>- Bertsoa.eus-ek sortutako materiala eskuratu</li> <li>- Lankurekin harremana sendotu eta sortutako materiala eskuratu.</li> <li>- Bertsolari Aldizkaria: aldizkariak sortzen duen materiala eta aldizkari aleak eskuratu eta elkarlanean sakondu</li> <li>- Dohaintzak zuzen erregistratu</li> </ul>

<b>Antolaketa eta Digitalizazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>XDZko atal guztien antolaketa eta tratamendua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atal guztietako manualak azalduko dira lan-taldean, denek prozesu guztien berri izateko.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atal guztietako euskarrien kokapenak bateratu eta dokumentu bakarrean jasota utziko da:</li> <li>- Katalogatu gabeko materialaren kokapena ere zehaztuta</li> <li>- Objektuen kokapenak finkatu eta birkokatu</li> <li>- Artxiboan (BE eta OA) katalogatzeko dauden materialak bilduta jasoko dira.</li> <li>- Erregistro sistema berria datuak egoki eguneratzen diren ziurtatuko da:</li> <li>- Artxiboko materialaren mailegu sistema antolatu.</li> </ul>
<b>Bilduma digitala: dokumentu elektronikoen kudeaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolaketa dokumentu Nagusian egindako egokitzapen eta hobekuntzak egunera mantendu.</li> <li>- SGXDZ euskarrien tratamendua</li> <li>- Kokapen moten azalpenak</li> <li>- Izendapen mota guztien azalpenak</li> <li>- SGXDZ bilduma digitalaren kontrola egin: fitxategien formatuaren, bolumenaren eta ezaugarrien araberako informazioa eskuratzea bideratu.</li> <li>- SGXDZ euskarrien kontrola egin: kopiak egitea eskatu, <i>robocopy</i>-ren jarraipena egiteko eskatu eta materialaren erosketaren kontrola egin.</li> <li>- Bilduma digitalaren segurtasuna bermatzeko kopia sistemaren egin daitezken hobekuntzak aztertu.</li> <li>- SGXDZ edukiaren hirugarren kopia, seguritate zinta, Subijana etxetik kanpo Eresbilen egoitzan gorde.</li> <li>- Eusko Jaurlaritzaren Errepositorio digitala egitasmoari buruz informazioa lortu.</li> </ul>
<b>Zerbitzuen berrikuntza teknologikoa: Ikus-entzunezkoen gunea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezkoen Lan-guneko eta Digitalizaziorako Unitateko ekipamendua funtzionamendu egokian mantendu.</li> </ul>
<b>Hedapen sarearen antolaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erredakzioarekin dokumentazio elkarlanari jarraipena eman.</li> <li>- Ikus-entzunezkoen digitalizaziorako lehentasunak elkarlanean landu.</li> </ul>
<b>Ikus-entzunezko bilduma: digitalizazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- XDZ Audio grabazio bildumaren digitalizazio planari jarraipena eman: Txapelketa Nagusi eta herrialdeetako txapelketen egoera aztertu eta digitalizazio plana martxan jarri.</li> <li>- XDZ Bideo grabazio bilduma beharren arabera digitalizatu</li> <li>- Saitetako beharrak identifikatu eta bideo digitalizazio plana diseinatu.</li> </ul>

<b>Datu-baseen egituraketa eta informazioaren kudeaketa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>BDB datu-basea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Web zerbitzari berriaren kontratazioa eta leku-aldaketa gauzatu.</li> <li>- Fitxategi egituraketa berria diseinatu eta gauzatu, <i>samvera</i>, Bertsoa.eus edo bestelako sistemaren bidez: BDBn orain jasotako fitxategiak sistema berrira bolkatu.</li> <li>- Knosys programa web zerbitzari zaharrean mantendu.</li> <li>- Deskriptoreen loturak egin oraingo BDBko datu-base guztietan: Liburutegia, Grabazioak, Prentsa.</li> </ul>
<b>Datu-base dokumentalen egitura garatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Samvera plataformaren ikerketa egin, BDBko egituraren txertatu eta katalogazio estandarrak garatu ahal izateko.</li> <li>- Baiezko kasuan, Museu de les Arts Escèniques (Bartzelona)ko katalogoa integratu daitekeen aztertu eta inplementatu.</li> <li>- Ezezko kasuan, garapena egin ahal izateko plataforma estandarrak aztertu eta inplementatu.</li> <li>- Artxiboa eta Kartelak datu-baseen fitxategi egituraketarekin frogatu.</li> </ul>
<b>Lankuko gestio integralerako programa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jasotako diru-laguntzaren bidezko aholkularitza eman:</li> <li>- Garatuko duten enpresak hautatzeko</li> <li>- Behar dituzten beharren txostena zuzen zehazteko</li> <li>- Egindako garapen lanen jarraipena egiteko</li> <li>- BDBra bidali beharreko datuak ziurtatzeko</li> <li>- Agenda eta webgunea zerbitzuak berrizatzeko, Bertsoa.eus-eko datuak erabiliaz.</li> <li>- Diru-laguntzareko txostena prestatu.</li> </ul>
<b>Beste datu-base eta plataformekin datu-trukea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozale.eus-erako prestatutako datu-bidalketak ziurtatu.</li> <li>- Bertsoa.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu</li> <li>- Bertsoikaskgela.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu</li> <li>- Bertsoeskolak.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu</li> </ul>

<b>Gizarteratzea</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>XDZren bilduma digitalaren eta datu-baseen gizarteratzea</b>	Internet: Bat-bateko 200 bertsoaldi inguru mp3 fitxategi bidez entzuteko moduan eskaini, dagokien grabazioen digitalizazioa eta tratamendua eginez.
<b>XDZren zerbitzuen gizarteratzea</b>	Harrera zerbitzua beharren arabera berrantolatu.
<b>Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak</b>	Dokumentazio jardunaldien 7. edizioa antolatuko da, Mintzolaren bidez, edo hala behar bada, Bertsozale Elkartetik.

<b>Oinarrizko Funtzaren Atalkako Garapena</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>Biografiaren datu-basea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iker taldearekin biografiak eguneratzeko egitasmoa landu.</li> <li>- Internet bidez jasotzen diren iradokizunak dagokion arduradunari bideratu.</li> </ul>
<b>Saioak eta Aldizkako Ekitaldiak</b> <i>Aldizkako ekitaldiak, aldizkakotasun batekin errepikatzen diren ekitaldiak dira: Txapelketak, Sariaketak, Bertso-paper Lehiaketak, bertso-asteak, ...</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agendaren bilketa modu berriak ezarri:</li> <li>- Xenpelarren <i>whatsapp</i> eta <i>telegram</i> aplikazioen bidez informazioa jasotzeko bidea martxan jarri.</li> <li>- Sare sozialak arakatzeko modua sistematikoki egin.</li> <li>- Hedabideetako hustuketa eguneratuta mantendu.</li> <li>- Antolatzaileekin harremanak garatzeko modua aztertu</li> <li>- Agenda bilketaren garrantzia eragileekin elkarbanatu</li> <li>- <i>Kulturklik</i> egitasmoari bidalitako datuak zaindu:</li> <li>- Lanku agendaren zabalkundea zaindu</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eusko Jaurlaritzaren Open Data zerbitzuan eskaintzen dituen bertsolaritzari buruzko datuak zaindu.</li> </ul>
<p><b>Bertsoak</b> <i>Bat-batekoak eta idatziak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtero jaso beharreko transkripzioen bilduma eskuratu:</li> <li>- <i>Bapatean 2019ko</i> transkripzioak</li> <li>- Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako transkripzioak eskuratu: Bizkaiko Txapelketa 2020, Xilaba 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020.</li> <li>- Transkribatzaileek behar duten informazioa (irizpideak, grabazioak, ereduak) antolatu eta ezagutzera eman</li> <li>- Transkribatzaile taldearen beharrei erantzun</li> <li>- Doinutegiari lotutako lanak burutu:</li> <li>- Doinutegi taldearen lanak koordinatu eta beharrianak detektatu.</li> <li>- Iker taldeari doinutegiaren egitasmoaren berri eman eta jasotzen diren oharrak eta iradokizunak helarazi.</li> <li>- Doinutegia eguneratu.</li> <li>- Partituren transkripziorako irizpideak finkatu eta idatziz jaso.</li> <li>- Doinutegiaren katalogazio eta tratamenduaren manuala garatu. Antolaketa orokorrean sarbidea jarri eta sail guztietako lankideen artean azaldu.</li> <li>- Doinuen errekonozimendu automatikorako aukeren azterketa abiatu.</li> <li>- Partituren fitxategi originalak bildu (.mus formatudunak).</li> <li>- Bat-bateko bertsoen katalogazioa egin:</li> <li>- <i>Bapatean 2019ko</i> bilduma</li> <li>- Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako bertsoaldien katalogazioa egin: Bizkaiko Txapelketa 2020, Xilaba 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020.</li> <li>- Publikatutako bat-bateko bertsoen korpusa errepasatu eta falta diren Txapelketa Nagusi eta herrialdeetako txapelketen finalekin osatu bilduma.</li> <li>- Bat-bateko bertsoen antologiak publikatzeko irizpideak jarraitu eta BDBn publikatu:</li> <li>- <i>Bapatean 2019ko</i> bilduma</li> <li>- Bizkaiko Txapelketa 2020, Xilaba 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona, entitate edo gaiak beste deskriptoreen bidez katalogatu eta ezabatu</li> </ul>
<b>Grabazioak</b> <i>Ikus-entzunezkoak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019ko plazako jarduna jasotzeko Grabazio Sarea indartu:</li> <li>- Herrialdeetako eragileekin eta herrialdeko ikerkuntza arduradunarekin elkarlana bultzatu</li> <li>- Bertso-eskolekin elkar-truke tratua sustatu</li> <li>- Baliabide tekniko egokiak eskaini</li> <li>- Grabatzaileen formazioa bideratu, irizpideak ezagutaraziz.</li> <li>- Urteko saioen % 15a grabatzeko irizpidea bultzatu.</li> <li>- Grabazioen atala lan-taldearen dedikazioekin indartu.</li> <li>- Aurreko urteko bilketaren argazkia atera, herrialdeka: izandako saioak eta jasotako grabazioen arteko lotura egin eta modu grafikoan erakutsi: BDBko grafikak baliatu</li> <li>- Hitzetik Hortzera eta Bertsoa.eus-ek 2019-2020 ikasturtean egindako grabazioak tratatu eta antolatu.</li> <li>- Urtean zehar edozein euskarritan jaso diren beste grabazioen tratamendua eta oinarriko katalogazioa burutu, fitxategien izendapena eta kokapena aplikatuz.</li> </ul>
<b>Argazkiak</b> <i>Paper, negatibo, positibo, digital eta digitalizatuak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urteko gutxieneko argazki-erreportajeak finkatu eta koordinatu.</li> <li>- Jasotako argazki bildumen informazioa bildu eta oinarriko tratamendua ziurtatu.</li> <li>- Bertsolari aldizkariaren argazki bilduma eskuratu eta oinarriko tratamendua ziurtatu (2016 urtetik gaur artekoak).</li> <li>- Argazkien datu-basean deskriptoreak bateratu.</li> </ul>
<b>Kartelak</b> <i>Saio eta ekitaldien inguruan argitaratutako bilduma (eskuorri, kartel, sarrera, itsasgarri, ...) eta bestelako materiala</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtean zehar edozein euskarritan jasotzen diren kartel eta bestelako materialaren oinarriko tratamendua eta dagokion kasuan, katalogazioa, egin.</li> </ul>
<b>Prentsa</b> <i>Paperean eta interneten argitaratutako egunkari, aldizkari eta webguneetako artikulak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019an finkatutako prentsa atalaren katalogazioa eta tratamendua egunera eraman.</li> <li>- Prentsaren katalogazio eta tratamenduaren manuala lankideei azaldu.</li> <li>- Prentsa iturriak egunean mantendu, behar direnak kendu eta gehitu.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behar denean, komunikazio sailari aldizkako ekitaldi zehatzen prentsa dosierrak egiteko laguntza eman (katalogazio gabe)</li> </ul>
<p><b>Liburutegia</b>  <i>Liburuak (zentzu zabalenean) eta Hemeroteka (Paperezko aldizkari, aldizkari elektronikoa, eta artikuluen datu-baseak)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburutegiko bilduma osatu,</li> <li>- Bertsolaritzaz argitaratzen den liburu oro eskuratzen saiatu.</li> <li>- Mintzola Ahozko Lantegiak dituen behar dokumentalei erantzuteko materiala eskuratzen saiatu: ahozkotasanaz, munduko kantu inprobisatuez eta euskarazko ahozko sorkuntzei buruz argitaratzen diren lanak eskuratzen saiatu.</li> <li>- Elkartek eta Lankuk edozein euskarritan sortutako materiala bildu (BertsoZalea, herrialdeetako buletinak eta bestelako argitalpenak).</li> <li>- Bildutako materialaren tratamendua eta oinarriko katalogazioa burutu,</li> <li>- 2020an jasotako liburuen tratamendua eta oinarriko katalogazioa egin.</li> <li>- Bapatean 2019ko liburuen pdf formatudun bertsioa interneten eskaini.</li> <li>- Bertsolaritzaz argitaratutako kapitulu eta artikuluen katalogazio analitikoarekin jarraitu.</li> <li>- Elkartek eta Lankuk edozein euskarritan sortutako materialaren tratamendua eta oinarriko katalogazioa egin.</li> <li>- Ahozkotasanaz, munduko beste kantu inprobisatuez eta euskarazko ahozko sorkuntzei buruz bildutako erreferentzia bibliografikoen oinarriko tratamendua egin.</li> <li>- Hirugarren solairuan eskuragarri dagoen bilduma berrantolatu: liburutegiko sailkapena finkatu eta horren arabera kokapena aplikatu.</li> </ul>
<p><b>Artxiboa</b>  <i>Bertsozale Elkarteen Artxiboa eta Orotariko Artxiboa</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jaso daitezkeen artxiboen gutxieneko baliabideekin egin daitezkeen tratamendua ziurtatu: jasotako artxiboen erregistro-deskribapena egin eta etorkizunean inbentarioa eta kokapenak egiteko prestatuta utzi. Hurrengo urteko egitasmoan inbentario lanak egitea ziurtatu.</li> <li>- Artxiboko objektuen kokapena landu</li> <li>- Elkartek sortutako barne buletinak bildu: barne orria.</li> </ul>

## Elkarte eta Sailekin elkarlanak

Helburu zehatzak	Ebaluazio adierazlea
<p><b>Ikerkuntza</b> Dokumentazioa ikerkuntzaren beharrianetarako prestatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerkuntza bileretan parte hartu.</li> <li>- Ikerkuntza sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun.</li> <li>- Biografiak egitasmoa iker taldetik eta ikerkuntza sailetik berrekiteko eskaera luzatu.</li> <li>- Doinutegia egitasmoa burutzeko behar diren datu guztiak eta elkarlana eskaini.</li> <li>- Urteko bilduma egiten duen <i>Bapatean</i> antologia libururako lanak ikerkuntza eta sustapen taldearekin batera bideratu:</li> <li>- Saioei buruzko informazioa helarazi</li> <li>- Transkripzioak koordinatu eta transkribatzaileei grabazioak prestatu</li> <li>- <i>Bapatean 2019</i> edizio digitala prestatu eta audio fitxategiekin batera interneten publikatu</li> <li>- Urtean zehar izan diren saio eta aldizkako ekitaldiei buruzko informazio guztia prestatu, taulen bidez kopuru orokor eta ehunekoak eskainiz.</li> <li>- Urtean zehar egin diren aldizkako ekitaldien fitxa osatuak eskaini</li> <li>- Urtean zehar izandako jarduna irudikatze behar diren argazkiak eskaini.</li> </ul>
<p><b>Transmisioa</b> Transmisioa taldearen beharrei erantzun</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Transmisio sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun.</li> <li>- <i>Bertsoikasgela.eus</i> hezkuntza arautuko ikasmaterialaren ataria elikatzeko dokumentazio zerbitzua eskaini.</li> <li>- <i>Bertso eskola</i> atariaren ikasmateriala elikatzeko dokumentazio zerbitzua eskaini.</li> </ul>
<p><b>Sustapena</b> Sail eta Herrialdeko Sustapen sailekin elkarlana bermatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sustapen sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun.</li> <li>- Bertsolaritzaren agendaren bilketaren berri eman, egindako azkeneko aldaketek izandako ondorioak aztertuz.</li> <li>- Antolatzen diren txapelketa eta ekitaldietarako dokumentazioa jaso eta behar diren dokumentazio-zerbitzuak eskaini eta ziurtatu: Bertso Eguna 2020, Bizkaiko Txapelketa 2019, Xilaba Txapelketa 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020.</li> <li>- Gai-jartzaileen plataformak behar duen dokumentazioa eskaini.</li> <li>- Epaileen plataformak behar duen dokumentazioa eskaini.</li> </ul>




	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuren kudeaketarako plataforma berria parte hartu.</li> </ul>
<b>Hedapena</b> Hedapen taldearen beharrei erantzun	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzetik Hortzerako eta Bertsoa.eus-eko dokumentazio beharrei erantzun eta sortutako materialaren bilketa eta katalogazioa ziurtatu.</li> <li>- Hedapen lantaldeak egindako ekoizpen berezien dokumentazio beharrei erantzun eta sortutako materialaren bilketa eta katalogazioa ziurtatu.</li> </ul>
<b>Komunikazioa</b> Elkartearen komunikazio beharrei erantzuten lagundu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun.</li> <li>- Editore taldean parte hartu.</li> </ul>
<b>Generoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Genero taldearen dokumentazio beharrei erantzun</li> <li>- Berdintasun planean parte hartu eta XDZren ekintza plana landu.</li> <li>- Emakume historikoen dokumentazioa lehenetsi eta argitaratu. (Biografiak, bertsoak...)</li> <li>- Datu-base eta testuetan genero ikuspegia txertatu.</li> </ul>
<b>Administrazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio administratiboaren kudeaketa bateratua eguneratuta mantendu: Ordainagiriaren jarraipena egin.</li> <li>- Erabiltzaile guztiei (partikularrak, erakundeak...) emandako zerbitzuen ordainagiriak bidali.</li> <li>- Azpiegitura digitalaren sistema orokorra berraztertu eta hobekuntzak planifikatu: zerbitzariak, segurtasun sistema eta kopien sistema</li> </ul>
<b>Lanku</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuk behar dituen informazio eskaerei erantzun.</li> <li>- Lankuk bere jardunean sortutako materialaren bilketa ziurtatu.</li> <li>- Aurten garatuko duten kudeaketara plataforma digitala BDBrekin lotzea, agendak bateratu eta Lankuren datuak BDBn ahalik eta automatikoen jasotzeko</li> <li>- Aholkularitza zerbitzua eman plataforma digitala garatzeko (5.4.4.3)</li> </ul>

## 9. HERRIALDEETAKO EGITASMOAK

Ezin uler daiteke Bertsozale Elkartea herrialdeetako egitasmorik gabe. Jarraian jaso dira 2020 urterako tokian tokiko egitasmoak.

Bertsozale Elkartearen egitura



## 9.1. Arabako Bertsozale Elkarteak

### Urteko helburuak

#### 1. GIZA BALIABIDEAK, PROIEKTUAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK OREKATU

- Pertsonal dedikazioa handitu lan taldea indartuz.
- Defizitik gabe amaitu 2020 urtea, pertsonal dedikazioaren igoera aurrera begira jasangarria izan dadin. Baliabide berriak bilatu.
- Pertsonala eta lana egokitu. Lana birbanatu.

#### 2. BERTSOGINTZAREN EKOSISTEMA ZAINDU

- Herrietako bertsozale taldeak egituratu eta zaindu komunitate horiek iraunkorrak izan daitezen
- Bertsolariak eta bertsozaleak aktibatu
- Bertso saio, elkarlan eta plaza berriak egon daitezen eragin

#### 3. TRANSMISIOKO LANA ERAGINKORRAGO EGIN

- Bertso-eskoletako ikasleen arteko harremana eta plazaratzea zaindu.
- Irakasleen formazioa eta erreleboa. Materiala.
- Zubiak: Bertso eskolak sortzeko lan intentsiboa. Amuarekin arrantzatu arrastrerik gabe.
- Gazteak Bertso mugimendura erakartzeko zirkuituak aztertu (Ikerkuntzarekin elkarlanean)

<b>Idazkaritza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Kudeaketa orokorra Elkartearen oinarritzko funtzionamendu egokia bermatu eta arauzko betekizunak txukun bete.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza eta koordinazio bileren aktak eta deialdiak garaiz egin</li> <li>- Bulegoa txukundu bakoitzaren espazioak egokitu. Lan tokiaren egokitzapena egin ekaina eta irailean</li> <li>- Zerga aitortpenak, zuriaketak eta laguntza eskaerak dagokion epean burutu</li> <li>- Bulegoaren mantenua ziurtatu: informatika, telekomunikazioak, fotokopiagailua</li> <li>- Posta, telefonoa eta datorrenari harrera egin gutxieneko ordutegi bat bermatuz eta eskaria dagokion sailera bideratuz.</li> <li>- Outlooken dagoen Kontaktuen datu basea eguneratu</li> <li>- Urteko artxiboa antolatuta utzi, bai paperean zein intraneten.</li> </ul>
Egitasmoa eta ildo estrategikoak adostu eta bete direla ziurtatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekainean urteko egitasmoaren tarteko ebaluazioa eta egokitzapena burutu. Abenduan memoria eta 2019rako egitasmoa</li> <li>- 2021 lehentasunak finkatu eta plana adostu zuzendaritza eta bertso- eskolen batzordearekin</li> </ul>
<b>Kargudunak eta bolondresak ahaldundu elkartearen gidaritza egin dezaten</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza batzordearen 10 bilera egin. Informazioa aldez aurretik bidali erabakiak bertan</li> <li>- Zuzendaritza kideak eta kargudunak iraunkorki informatu elkartearen martxaz,</li> <li>- Arduradunaren bat duten bolondresen eta eragileen arteko koordinazioa bermatu zuzendaritzaz gain gutxienez 2 bilera eginez.</li> <li>- Batzar nagusia urtarilean, partehartzea bultzatu eta arin eta eraginkor izan dadin prestatu</li> </ul>
<b>Lan antolaketa eraginkorra egin, errekursoak optimizatu, eta ongi koordinatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileen lanaldiak eta proiektuak dauzkagun baliabideetara egokitu, bakoitzaren lan-taula burutu eta ebaluatu ekainean eta abenduan.</li> <li>- sailtako eragileen arteko koordinazioa bermatu hilean ostiral</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Profesionalen lan taldea zaindu, ardura banaketa orekatua, elkarlana eta optimismoa sustatuz.</li> <li>- Hamabostean behin Ostiraletan KOORDINAZIO BILEREA langile guztiakin egitasmoaren jarraipena egiteko. Hilean behin sail eragileak bakarrik</li> <li>- Lanaldien araberrako banaketa berria eta urteko kronograma burutu otsailean</li> </ul>
<b>Pertsonalaren kudeaketa egokia egin</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaldiak, baldintzak, kontratuak, lan-orduen kontrol orriak eta ordezkapenak txukun kudeatu</li> <li>- Langileen eskubide eta betebeharren hurbileko jarraipena egin. Behar diren neurriak hartu</li> </ul>
<b>Nazio mailan ongi koordinatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kudeaketa batzordean parte hartu hamabostero bilerara ordezkari bat bidaliz</li> <li>- Administrazio eta diruzain batzordean parte hartu</li> </ul>
<b>Aurrekontuaren eta diruzaintzaren jarraipen zorrotza egin. Finantziario iturriak sendotu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hilean behin kontabilitatea eguneratu, fakturak egin, ordaindu eta diru mugimenduak eguneratu</li> <li>- Zordunei eta hartzekodunei errepaso, hiruhileka</li> <li>- Aurrekontu ahalik eta orekatua egin. defizita saihesteko finantziario iturriak ziurtatu, eta gastuak eta proiektua baliabideetara egokitu</li> <li>- Prezioen eguneraketa burutu 2020ko irailerako.</li> <li>- Onura publikoko elkarte izendapena tramitatu 2019an</li> <li>- Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko udalarekin bilerak egin hitzarmenak egokitu 2020rako</li> </ul>
<b>Herrigintzan ekarpena egin bertsolaritzatik, ikuspegi propioa emanez</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskalgintza foroetan parte hartu, erabaki kolektiboen parte izan</li> <li>- Arabako Foru aldundiaren Euskararen aholku batzorde eta Gasteizko udalaren Kultura eta Euskara batzordeetan parte hartu ELKARTEA ordezkatzuz</li> </ul>

<b>Komunikazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Kudeaketa orokorra <b>Barne komunikazioa</b> Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio Saileko arduraduna izendatu eta zuzendaritzan bere parte hartzea bermatu</li> <li>- EHBeko komunikazio arduradun eta teknikariarekin koordinatu</li> </ul>
<b>Bazkideak informatu, komunitatea trinkotu eta parte hartzeko aukera eskaini</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzar orokorra Urtarrilaren 18an, emailez, albistea eta txartelarekin komunikatu</li> <li>- Emailez, bazkideak informatu astean behin agenda, albisteak</li> <li>- Berripapera 5 ale argitaratu (urtarrila, martxoa, ekaina, iraila, abendua). Bertso eskoletako ikasleei helarazi</li> <li>- Sare sozialak baliatu komunitatea harremanetan jartzeko sailekin elkarlanean.</li> <li>- "Arabako bertso X" whatsapp taldea elikatu albisteekin, agenda eta beste edukinekin</li> <li>- 4na agerpen EHBeko Bertsozalea eta barne-orrian</li> </ul>
<b>Kanpo komunikazioa</b> Elkartearen proiektu ezberdinetaz eta Arabako bertsolaritzaren mugimenduaz iraunorki informatu gizartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herri mailako hedabideen datu-basea eguneratu eta iraunkorki informatu</li> <li>- Orain arteko trukeko politikak mantendu egunkari (insertoa eta bannerrak) eta irratiekin (kuñak).</li> <li>- WEB gunean: - 50-60 albiste argitaratu eta egitura baliatu egitasmoak komunikatzeko eta dagoen informazioa eguneratuta mantendu. - 19.000 bisita eta 5.000 bisitari lortu</li> <li>- ALEA aldizkarian 5-7 astetan behin kolaborazioa egin eta alea.eus-en gure albiste guztiak linkatu</li> <li>- Sare sozialetan gure albisteak, gure agenda eta kanpotik ininteresgarriak izan daitezkenak zabaldu: 300-340 argitalpen</li> <li>- bertsoa.eus-en Arabako txapelketarako proposamena egin eta hedapenerako egokiak diren plazako saioen berri eman 10-15 saio inguru grabatzeko</li> <li>- Astean behin bertso agenda bidali MAILING bidez bazkideak, hedabideak, ikastetxeak eta erakundeak</li> </ul>

<b>Transmisioa/ Hezkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<p><b>Kudeaketa orokorra</b> Oinarrizko ezagutza herrialdean bermatzeko 7 eskualdetan lan egin hezkuntza, aisialdia eta bertso-eskoletan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 47 ikastetxetan bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza bermatu LH eta 16 ikastetxetan DBHn</li> <li>- Langileen bilerak ostiraletan, astero, hilean bat libre</li> <li>- urteko egitasmoa adostu eskualde eta herrialde mailan</li> <li>- eskualdeetako irakasle-arduradunak bertso eskolarekin koordinatu</li> <li>- Eskualdeetako erakunde eta eragileekin zuzeneko harremana izan</li> </ul>
<p>Bertso eskolak mantendu, ordezkapen naturala ziurtatu eta indarberritu 2018ko irailean</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskolen batzarra bildu 5 aldiz: Iraila, azaroa, abendua, otsaila eta ekaina. Batzordea ongi dinamizatu ahaldua eta partehartzailea izan dadin.</li> <li>- Irakasleei formazioa eta bitartekoak eskaini</li> <li>- Izena emateko aurrekanpaina eskolartekoarekin batera. Kanpaina arrunta irailean. Klase pasa 10 ikastetxetan</li> <li>- Eskualdekako koordinazioa eta jarraipena</li> </ul>
<p>Gazte berriak plazarako trebatu, kolektibo bezala indartu eta motibatatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztetxoek taldeak dauden Herri bakoitzean bertso-eskolarekin elkarlanean plaza bana sortu gutxienez eskolartekoan hasi berriak diren gazteek lehen saioak egin ditzaten (LEGUTIO, ARAMAIO, AGURAIN, ZALDUONDO eta GASTEIZ)</li> <li>- GAZTEENTZAKO "SARIKETA" ereduari ta formatuari buruz hausnartu eta ANTOLATZEN lagundu 2020an</li> <li>- Topaketa/trebakuntza asteburu bat egin gaztekin Udaberrian, eskolartekoaren aurretik. MANURGAN</li> </ul>
<p>Transmisioan egiten den lanaren Komunikazioa modu eraginkorrean egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- BERTSO BILDUMAK egin eskualdeka. Otsaila amaierarako bertsoak eta argazkiak eta maketazioa martxoan burutu</li> <li>- Berripapera urtean 5 ale eta 6 Urtekari mantendu eta zabaldu bertso-eskoeltako ikasleen artean. Datu basea eguneratu</li> <li>- WEB gunea eta sare sozialak : ekintza zehatzen zabalundea egin. Eta kurtso hasiera eta amaieran aparteko komunikazioa burutu, datuak eskainiz</li> </ul>

<p><b>Gasteiz bertsolari:</b> Hezkuntza arautuko lanari jarraipena eman, haur, gazte eta helduak bertso eskoletara erakarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gasteizen gurekin elkarlanean dauden ikastetxeetan eskolaz kanpoko ekintza bezala eskaini dezaten beharrezko kudeaketa lana egin, iaz hasitako bidea finkatu</li> <li>- Aisialdia: eskolarteko idatzizko topaketa antolatu eta barnetegi eta udalekuetan gasteizko haur eta gazteen partehartzea bultzatu</li> <li>- Bertso-eskolako taldeen egitura sendotu eta taldeen arteko harremana bultzatu, kuadrilartekoa, gazteen ekimenak eta ekintza puntualen bidez</li> </ul>
<p><b>Aisialdia</b> Bertsolaritza aisialdirako gozamen eremu bezala eskaini eta zabaldu Arabako haur eta gazteen artean</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barnetegiak 3 eskualdetan mantendu (LAUTADA, GORBEIALDEA, AIARALDEA) eskaintza errealitatera egokituz, eta beste eskualdeetako haur eta gazteei ireki plaza libreak dauden guztietan.</li> <li>- Eskolartekoa eskualde mailan haurren idatzizko topaketak burutu (6 eskualde) bertso-eskolen parte hartzea ziurtatu bat-batean</li> <li>- Eskolartekoa herrialde mailan antolatu. Sari bateratua finalistentzat.</li> <li>- 14-18 urteko eskolarteko txapelketarako arabako gazteak zaindu eta babestu. Euskal herriko txapelketako finalera doazeneei behar besteko arreta eskaini. Bertso-eskolaz kanpo entrenamenduak behar izanez gero antolatu</li> </ul>
<p><b>Hezkuntza Arautua:</b> Gu ere bertsolari programa arrakastaz eta kalitatez garatu oinarritzko ezagutza bermatuz 10-12 urteko arabar gaztetxoaren artean</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-</li> <li>- 47 ikastetxetan klaseak 15ero 10-12 urteko haurren artean</li> <li>- Tailer laburrak eskaini 7 ikastetxetan. Añana, Gasteiz eta Arabar Errioxan</li> <li>- 16 ikastetxetan tailer laburrak eman 13-16 urteko gazteekin</li> <li>- Ikasgelen arteko topaketak eta saioak antolatu</li> <li>- Bertsoikasgela.eus elikatzeko materialgintzan parte hartu</li> </ul>
<p><b>Bertsoa Bizi Gazte</b> Gazteak bertso mundura erakarri, bertsozaletu eta bertso eskolarako zubiak eraiki</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehiaketa berritua gauzatu, zuzeneko emanaldiak edo bideoklipak, 14 talderen parte hartzea eta 5 eskualdeetako gazteen presentzia bermatu</li> <li>- Sare sozialetan eta web gunean lehiaketaren berri eman.</li> <li>- Gazteen zirkuituen azterketa egin ikerkuntzarekin elkarlean eta proposamena landu 2021ko egitasmorako</li> <li>- Bertsoa bizi gazte jaia gazteen eskolartekoarekin batera.</li> </ul>
<p><b>Arabako bertso eskolak</b> Bertso-eskolarako zuzeneko zubiak izango diren aukera gertuko eta errealak eskaini haur eta gazteei</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskola egitura izan baino haurrik ez duten herrietan ikastetxeetan eskolaz kanpoko ekintza bezala eskaini dezaten beharrezko kudeaketa lana egin AMPEKIN. Haurrek eskura izan dezaten.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsoa bizi gazte 5 tailer bermatu eskola ordutegitik kanpo 2020ko udaberrian</li> <li>- Bigarren hezkuntzan gurekin ari diren ikastetxeetan bapateko taldeen eskaintza egin 2020-2021 ikasturterako. Klase pasa egin gazteak animatzeko finantzatzeko prest dauden 5 ikastetxetan</li> <li>- Daudenak mantendu eta Gazte taldeen ordezkapen naturala eta indartzea bermatu</li> <li>- Aurrera eraman 6 eskualdetako 10 herritan</li> <li>- Irakasleen inplikazioa eta presentzia eskolaz kanpoko jardueretan, lanaldia egokituz</li> <li>- Bertso eskolen arteko ekimen berri bat landu BERTSOTRUK erakoa, urtariletik ekainera. Urritik abendura gauzatu. 4 saio bermatu</li> <li>- kontratuak eta baldintza egokiak ziurtatu urritik ekainera</li> </ul>
--	---

<b>Sustapena</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>Kudeaketa orokorra</b> Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatzea	- Sustapen Saileko arduradun bat Arabako zuzendaritzan bermatu
LANKUREkin sustapen elkarlana	- LANKUREKIN Arabako bersto saioen merkatua eta beharrak aztertu, orain arteko elkarlana baloratu, eta esku artean ditugun proiektuak eta elkarlanak adostu
Bertso-saioen jarraipena egitea	- Araban antolatzen diren bertso-saioen azterketa kuantitatiboa (berezko inizatiba, eskualdeka, formatuak)
Arabako bertsolaritzaren hedapena bideratzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzetik Hortzeran eta bertsoa.eus-en Arabako bertsolaritzaren presentzia nola agertu proposamena zehaztu (txapelketan). Hedapenerako saio egokiak direnen berri eman.</li> <li>- Bertxoko irratsaioa, bertsoa.eus, Hitzetik Hortzera, Hitza Jolas, web gunea eta sare sozial ezberdinetarako materiala bideratu.</li> </ul>

Saioen exekuziorako behar diren baliabideak lortzea	- Bi soinu ekipoak, grabagailua, bideo kamera edo argazki kamera kudeatzea. Biltegia berrantolatu
Gasteizko jaietako egitarauan bertsolaritzaren presentzia bermatzea	- Gasteizko jaietako Aihotz plazako 5 saioak kudeatzea eta alde zaharreko txosnek gune berrian saio bat lotzea Txosnen batzordearekin elkarlanean

<b>Ikerkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Kudeaketa orokorra <b>Herrialdeeko ekitaldien dokumentazioa bildu eta Xenpelarrera igorri</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarreak kudeatutako saioen eta bestelako saioen grabazioak: audioa (%18-22=25 saio ), bideoak (%14-16 = 20 saio ) eta fitxak</li> <li>- Ekitaldi garrantzitsuenen dokumentazio grafikoa bildu: argazkiak (%35=60 saio), kartelak (%60-70=110 saio )</li> <li>- Arabako saioen datu bilketa egin agendarako</li> <li>- Elkarreak antolatutako aldizkako ekitaldien informazioa arretaz bildu</li> <li>- Prentsa lokalaren hustuketa: interneten (ALEA, DNA, ELCORREO)</li> </ul>
<b>Haitzondo datu basea eguneratu</b>	- Arabako bertsogintzaren fitxak eguneratuta mantendu eta behar direnak sortu edo ezabatu
Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EHBEko Ikerkuntza Batzordean parte hartu</li> <li>- Nazio mailako ekimenak Araban antolatzen direnean koordinazio eta behar bada antolkuntza bermatu.</li> <li>- Ikerkuntza Saileko arduradun bat Arabako zuzendaritzan bermatu</li> </ul>
Arabako bertsozaleen iritzia aztertzea eta baliatzea etorikizunerako erronkak markatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gazteak plazaratzeko zirkuituei buruzko ikerketa txiki bat egin bertsozaletasunaren azterketa eta galdetegian oinarrituta, Transmisioarekin elkarlanean</li> <li>- Arabako bertsozaleei bertsozaletasunari buruzko inkesta eta jasotako emaitzen analisisa eta barne dibulgazioa.</li> </ul>

## 9.2. Bertsularien Lagunak Elkarteak Lapurdi- Nafarroa Beherea eta Zuberoa

### Urteko helburuak

- Dauden Bertsu eskolak indartu eta berri batzuk sortzen entseatu.
- Hezkuntza arautuan (Seaskako ikastoletan) eta adar elebidunean klaseak ematen jarraitu.
- Bertsu eskolen inguruko jarduerak antolatzen jarraitu.
- Bertsulariak Ikastoletan - Bertsu Topaketak - Bertsulari Titiki Egunak – Eskola Elebidunen Besta Egunak – Gazteen Xapelgoa – Bertsu Eskolen Eguna – Haizea Dator.
- Helduen Bertsu Eskolak bultzatu.
- Iaz hasitako Adi Adin proiektua indartu eta zabaldu.
- Bertsularitzaren eta Bertsu saioen sustapena.
- Hernandorena Bertso Sariketa antolatu.
- VI. XILABA Xapelketa antolatu.
- Hedapenean eta Komunikazioan indar berezi bat egin.
- Punttuka irrati saioarekin jarraitu (Euskal Irratien hitzarmenaren barnean)
- Saioen grabaketak eta bilketak egiten jarraitu.
- Elkartearen sostenigarritasun ekonomikoa aztertu eta aterabideak atxeman.
- Eragile ezberdinekin harremanak egonkortu eta indartu. Haiekin hitzarmen ezberdinak sinatzen jarraitzeko eta berriak lortzeko.
- Bertsu Eskolak dauden herrietako Herriko Etxeetako agintariekin harremank indartu eta posible bada hainbat hitzarmen lotu.

<b>Idazkaritza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza eta sailen funtzionamendua bermatu:</li> <li>- bilkuren maiztasuna bermatu.</li> <li>- Zuzendaritza kideen informazio bermatu.</li> </ul>
<p>Eguneroko administrazio zereginak bete. Elkartearen sostengarritasun ekonomikoa aztertu eta aterabideak landu. Erakunde (EEP, Hirigune Elkargoa, EKE, Kontseilu Orokorra eta herriko-etxeak) hitzarmenak landu. Langileen kontratuak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Usaiako administrazio zereginak bete.</li> <li>- Aitzinkondua kudeatu: Gure eremuan eraman behar den kontabilitatea segurtatu, EHBE baitan kontuak eraman.</li> <li>- Finantza lan-taldea sortu: aitzin ikusi 27000€ko ziloa kudeatu eta epe luzerako aterabideak aztertu.</li> <li>- Dauden diru iturriak segurtatu eta berriak atxeman.</li> <li>- Urteroko diru laguntzez gain epe luzeagorako hitzarmena erdietsi.</li> <li>- Langileen kontratuak Bertsularien Lagunak elkartera pasatzeko abiatutako bideari jarraipena eman.</li> </ul>

<b>Komunikazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Barne komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkide eta bertsu eskolako gurasoekiko harremana landu:</li> <li>- Bertsozalean parte hartu.</li> <li>- EHBE elkarteko barne komunikazioa baliatu: barne orria, web orria.</li> </ul>
Kanpo komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteko jardunaren berri eman:</li> <li>- transmisio ekintza osagarriak.</li> <li>- hedapen ekintzak: Haizea Dator, Hernandorena, XILABA Xapelketa.</li> <li>- Punttuka irrati saioa astero.</li> </ul>

<b>Transmisioa/ Hezkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<p>2019-2020ko ikasturteari begira: Dauden bertsu eskolak indartuz, mantendu. Eta bertsu eskola berriak sortu nahi ditugu. Era berean lehenago aipatutako herri bertsu eskolei segida bat eman nahi diegu. Herri bertsu eskolen sarea zabaldu eta egonkortzeko.</p> <p>Ikasturte honetan izan diren aldaketen harira, egokitzapenak egin behar izan dira plangintzetan bertsu eskolen eskaerari modu egoki batean erantzun ahal izateko. Aktibitateak desagertu dira baina asteazkenak libre geratu dira bertsu eskola gehiago eman ahal izateko. Ikastolen ordutegiari jarraiki, oren bat galdu dugu bertsu eskolak egiteko ikastolaren ondotik. Oren eskasi horri aurre egin ahal izateko asteazkenetan bertsu eskola gehiago ireki dira eta erantzun ahal izan zaie bertsu eskolen eskaerei.</p>	<p><b>Orain arteko bertso eskoletako taldeei erantzun eta berriak sortu.</b>  <b>2019-2020:</b> Haurren Bertsu Eskolak 21 herrietan, 29 talde eta 195 ikasle. Orokorki, ikasturtean 1184 oren emanen dira bertsu eskoletan.</p> <p><b>Bertso-eskolen dinamika laguntzeko ekintza osagarriak antolatzea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Xapelgoa (Eskolartekoa)</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Kanporaketak, Baigorri apirilaren 20-23 eta Finala, maiatzaren 30ean Itsasun.</li> </ul> </li> <li>- <b>Bertsu topaketak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Apirilaren 20-21ean eta 22-23an haurren topaketak (100 haur inguru espero dira orotara).</li> <li>o Apirilaren 28, 29 eta 30ean gazteen topaketak, Lesakan (60 gazte inguru espero dira).</li> </ul> </li> <li>- <b>Bertsu-eskolen besta:</b> maiatzaren 30ean Itsasun.</li> <li>- <b>Haizea Dator</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Urtarrilak 10, Itsasu (Goxoki gaztetxean). Otsailak 6, Baiona (Kalostrape ostatuan). Martxoak 13, Azkaine (Xoko Ona ostatuan). Apirilak 3, Urruña (Bertoli elkartean). Maiatzak 15, Baigorri (Basaiea elkartean).</li> </ul> </li> </ul>
<p>Ikastolak bertsu eskolen iturri eta aska direla erran gabe doa.</p> <p>Horregatik, gure elkarteko 4 erakasleak ibiliko dira aurten ere Seaskako ikastoletan, 3. zikloko haur guzietan Bertsularitzaren inguruko erakaskuntza emanez.</p> <p>Hortaz gain, ezinbertzekoa da ere haur horiek bertsuazaletasunari gusto hartzeko eta beraz eskola jarduna emankorragoa izateko. Bertsu eskolentzako proiektioa edo zubia ukaitea eta</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Seaskan ematen den bertsu erakaskuntza jarraitu. Ikastolen Konfederazioarekin urteroko hitzarmena sinatu.</li> <li>- Ekintza osagarriak antolatu (bertsulariak ikastoletarat, bertsulari ttipi eguna...).</li> <li>- Ikastoletatik bertsu eskolentzako zubi lana egiten jarraitu.</li> <li>- <b>2019-2020:</b> 61 ikastoletan. 950 haur.</li> </ul> <p><b>Bertsulari Ttiki Egunak</b>  Bi (bat goizean eta bestea bazkal ondoren) maiatzaren 12an Senperen, bat maiatzaren 14ean Larresoron eta beste bat Larzabalen maiatzaren 15ean</p> <p><b>Bertsulariak eskolentzarat</b></p>

<p>bertsu eskolekin lotura duten bertsu ekimenetan parte hartzea. Honenbestez, Seaskako eta bertsu eskoletako eremuak ongi definiturik, eta bata besteaz elikatzen dela oharturik, Seaska ikastolen federakundearekin harreman emankorra ezinbestekoa da.</p>	<p>Urtero egiten den gisan, BERTSULARIEN LAGUNAK eta Seaskak elkarlanean «Bertsulariak Ikastoletarat» ekimena antolatzen dugu. Ikastola bakoitzak duen azken bertsularitza kurtsoan burutu ohi da ekimen hau. Bertsu eskoletan ari diren gazteek parte hartzen dute bertsu saioan eta Ikastolako haurrak dira ikusleak.</p>
<p>Adar Elebidunetako jarduna. Badira urte batzuk BERTSULARIEN LAGUNAK elkarteak adar elebidunetik egin galdeari ihardesten diola. Jadanik galdetua den ikastetxeetan bertsularitzarat eta bertsuzaletze helburua duten ikastaroak emanen dira. Ikastaro hauek bertsu eskolako erakasleak eskainiko ditu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orotarat, 47 bat eskola eta kolegio elebidunetan, haur eta gazteek ukanen dute bertsularitzari buruzko ikastaroa.</li> <li>- 2020. urtean Bertsolari Bat klasean proiektuan, ikastaroetan zehar ikasleek prestatutako bertsuekin eta bertso saio batekin, maiatzean bi Besta egingen dira Donibane Lohizunen.</li> <li>- HHerri Elkargoan izandako aldaketek baldintzaturik proiektu osoaren kudeaketa eta besta desberdinen antolaketa Bertsularien Lagunak Elkartearen esku izanen da hemendik goiti. Proiektuak Elkartearentzat duen garrantzia ikusirik lan zama hori guregain hartzeko prestutasuna erakutsi dugu 2019-2020 ikasturtetik goiti proiektuak orain arte bezala segitu dezan. Lan zama hori transmisio eragileak bere gain hartuko du.</li> </ul>
<p>Bertsu eskoletako erakasleen jarraipena egin.</p>	<p>Erakasleen prestakuntza, formakuntza, jarraipena egin.</p>

<h2>Sustapena</h2>	
<h3>Helburu zehatzak</h3>	<h3>Ebaluazio adierazlea</h3>
<p>Bertsularitzaren eta Bertsu saioen sustapena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020an ere, elkarteak bertsu saioen sustatze lana hiru moldetan egingen du: bertze elkarteek antolatu saioak diruz lagunduz, sustatzaile izanez, edota antolatzaile nagusi izanez.</li> <li>- 2020an ere, EK Eren ekarpen ekonomikoari esker, antolatzaile andana diruz laguntzen ahalko dugu. Oraindik aitzina, diru laguntza eskaera egiteko webgunetik pasa beharko da, hartan atzematzen baitira ere galdea egiteko formularioa eta abar.</li> </ul>

	- 2020 urte honetan oraindik esperimentalak den lanketa bat eramaten ari gara Kanalduderekin batera, honek emankizun berri bat plantan jarri baitu eta erregulari bertsoari lekua ematen baitio.
Hernandorena Bertsu Sariketa.	Eskolarteko ibilbidetik, plazako ibilbidera jauzia ematen ari diren 25 urte arteko gazteei, beren burua ezagutarazteko parada ematea da xedea. KANPORAKETAK: 1. Maulen, Zinkan, apirilaren 4an 2. Baigorri, Bixentaenian, apirilaren 11n 3. Kanbon, Gaztetxean, apirilaren 18an FINALA: Baionan, Zizpa gaztetxean, maiatzaren 2an.
Helduen bertsu-eskolak segurtatzea.	Transmisio sailarekin batera indar berezi bat egiten ari gara azken urte hauetan Helduen Bertsu eskolak bultzatzeko. 2020an ere ahal dugun laguntza guziaz eskainiko diegu talde ezberdinei, beren gogo eta eritmoan bertsutan aritu daitezten.
VI. XILABA Xapelketa.	2020an gure eremuko VI. XILABA Xapelketa ospatuko dugu, eta molde egoki batean gauzatzeko arlo ezberdinetan lanean hasiak gara jadanik. - diru-iturriak - epaile, gai-emaile, gai-egile taldeak osatzeko - komunikaziorako - Partehartzaileen izenak bildu - Formatua - Lekuak
Adin Adin.	Duela bi urte Saran eman genuen lehen urrats xumeak bigarrena ere behar duela pentsatzen dugunez, aurten proiektua sendotu eta bigarren urratsarekin zaharretxetara iritsi nahi genuke berriz ere. Hala ere gisa horretako proiektu batek ekonomikoki eta jende aldetik inbertsio handia suposatzen du eta, hartara, Akitania mailan esleitzen den diru laguntza eskaera egin dugu eta arrapostuaren beha gara.
Hezkuntzarekin.	Sustapena eta Hezkuntza saila elkarren ondokoak dira derrigor. 2020tik aitzina elkarlan estuagoa eraman beharko genuke, bai bertsulari gazte/berriek jende aitzinean lekua ukan dezaten eta baita sustapen lanaren berri ukanez bertsuaz harago inplikatzeko gogoia ukan dezaten.

<b>Ikerkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Bertsularitzaren eta Bertsu saioen sustapena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020an ere, elkarteak bertsu saioen sustatze lana hiru moldetan egingen du: bertze elkarteek antolatu saioak diruz lagunduz, sustatzaile izanez, edota antolatzaile nagusi izanez.</li> <li>- 2020an ere, EK Eren ekarpen ekonomikoari esker, antolatzaile andana diruz laguntzen ahalko dugu. Oraindik aitzina, diru laguntza eskaera egiteko webgunetik pasa beharko da, hartan atzematzen baitira ere galdea egiteko formularioa eta abar.</li> <li>- 2020 urte honetan oraindik esperimentalak den lanketa bat eramaten ari gara Kanalduderekin batera, honek emankizun berri bat plantan jarri baitu eta erregulariki bertsoari lekua ematen baitio.</li> </ul>



### 9.3. Bizkaiko Bertsozale Elkarteak

<b>Urteko helburuak</b>
<p>Elkartearen misioa da bertsolaritzaren ekosistema osoa, eskualdez eskualde, etengabe zaintzeko, elikatzeko eta garatzeko bideak edota baliabideak eskaintzea eta egikaritzea, lekuan lekuko errealitateari erreparatuz.</p> <p>Horretarako, urtero egokitu eta garatuz doan egitasmoa gauzatu da. Aurten, gainera, ohiko jarduera eta proiektuak gauzatzeaz gain, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urtea izango da batetik, eta bestetik gazteen plazaratzea laguntzeko egitasmo berri bi ipiniko ditugu martxan.</p>

<b>Idazkaritza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Zuzendaritza batzordearen osaketa berria egin. Zuzendaritzetan lantzeko edukiak eta prozedurak zehaztu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza kide berriekin osatu (lurraldetasuna, belaunaldi artekotasuna, generoa, eta ezagutza kontutan hartuta)</li> <li>- Zuzendaritzan gai estrategiakoak landu</li> </ul>
Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko partaidetza prozesuan parte hartu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EH mailan egingo den antolaketa eta funtzionamenduari buruzko partaidetza prozesuan parte: zuzendaritzak, lan-taldeak, talde teknikoak.</li> </ul>
Sostengagarritasun ekonomikoa lortu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Finantzazio bide berriak landu</li> <li>- Aurrekontuen jarraipen zorrotza egin, negozio bide berriak aztertu eta tarifak errebisatu</li> </ul>
Langileen etengabeko formazioa bultzatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleen mintegiak erabili barne formaziorako, etenbariko hobekuntza.</li> <li>- Kanpo formaziorako aukerak eskaini</li> </ul>
Feminismoa zehar lerro	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera denetan feminismoa zehar lerro moduan txertatu</li> <li>- Bizkaiko Bertso mugimenduko emakumeen topaketa sustatu</li> </ul>

<b>Transmisioa/Hezkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea hobetu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kudeaketan jarraipenerako prozedura egokiak diseinatu eta harremanak zaindu</li> <li>- Metodologiaren azterketarekin jarraitu, proposamen didaktikoa lantzen jarraitu</li> </ul>
Ekintza osagarriak sustatu (aisialdia eta zubi-lana)	<p>Ekintza osagarriak bultzatzen jarraitu</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bertso saioak ikastetxeetan</li> <li>o Kantaldiak</li> <li>o Ikastetxeen arteko topaketak</li> <li>o Bertso barnetegiak: negukoa eta udakoa</li> </ul>
Eskualdeetako plangintzari jarraipena eman	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualdeetara/bertso eskoletara hurreratu.</li> <li>- Urteko egitasmoa konpartitu eta osatu</li> <li>- Zubi lanean eragin</li> <li>- Bat-bateko taldeekin beharrean jarraitu (hezkuntza arautua eta bertso eskolaren arteko zubia)</li> </ul>

<b>Sustapena</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Udabarria bertsotan eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa egin	<p>Txapelketa formatu berriarekin gauzatu.</p> <p>Txapelketaren beraren helburuak zaindu.</p>
Gai-jartzailletza eta epailletza sustatu	<p>Talde teknikoen osaketan lagundu</p> <p>Talde bien arteko koordinazioa sustatu</p> <p>Txapelketako kontestuan beharrezko azpiegitura eta babesak eskaini</p>
Gazteen plazaratzea sustatu	<p>Gazteen plazaratzerako aukerak eskaini:</p> <p>Eskolatik plazara</p> <p>Eskolartekoa</p> <p>BBK sariketa</p>

	Plazara! → BERRIA Gazteen formazioan lagundu: Sakontze Bertso Eskola, gazteentzako bertso eskola osagarria → BERRIA
--	---

<b>Ikerkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Bilketa lana sustatu	Bilketa sustatu eta jasotakoa Xenpelarrera bideratu. Gutxieneko grabazioak egon daitezen, biltzaile sarea motibatu. Grabazioak jasotzearen garrantziaz jabetzeko informazioa eman
Haitzondo fitxak	Bereziki Txapelketari lotuta, Haitzondo fitxak sortu eta eguneratu

<b>Komunikazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Barne komunikazioa landu	Zuzendaritza eta lan-taldearen arteko etengabeko informazioa bideak sustatu Bazkideekin izan beharreko komunikazio zaindu Kanpo komunikazioa antolatu. Zer komunikatu, noiz komunikatu, nori komunikatu eta zelan komunikatu zehaztu

## 9.4. Gipuzkoako Bertsozale Elkarte

<b>Urteko helburuak</b>
2020a ohiko egitasmoa indartzeko urtea izango da, Txapelketaren gehigarririk gabe. Hezkuntzan ematen ari garen berrikuntzan jarriko dugu fokoa nagusia. Bestalde, bertso eskoletan dauden beharrei erantzuteko baliabideak jarriko ditugu, azken urtean hein handi batean albo batera utzita izan baitugu bertso eskoletako eragiletza.

<b>Idazkaritza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>Zuzendaritza</b> Zuzendaritza Batzordearen berrantolaketa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritzaren orain arteko diagnostiko bat egin.</li> <li>- Lehendakari aldaketa diagnostikoen emaitzen arabera antolatu.</li> <li>- Zuzendaritza kide berriak fitxatu (3 zehar lerroak kontuan hartuz).</li> <li>- Zuzendaritza ahalduentzeko bitartekoak jarri izana.</li> </ul>
<b>Gogoeta estrategikoa</b> Funtzionamenduaren partaidetza prozesua behar bezala egin eta lan moduak egokitu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzionamenduaren analisia Gipuzkoako gune guztietan egin.</li> <li>- Funtzionamendua eta lan moduak egokitu eta aldaketak gauzatu.</li> <li>- Beharren arabera lan taldea egonkortu.</li> </ul>
<b>Kudeaketa</b> Aurrekontuko sarrerak/gastuak aztertu eta orekatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019ko emaitza ekonomikoa kontuan izanda benetan proiektuari egokitutako erabaki batzuk hartu izana.</li> </ul>

<b>Komunikazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>Komunikazio kudeaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritzako bileretan informazio orria hilerok edukiz bete.</li> <li>- Kudeaketako bileretako informazio atala beti bete.</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barne komunikazioa: lan taldearen eta zuzendaritzaren arteko komunikazioa bermatu eta Euskal Herri mailako informazioa eta egitasmoa lan taldera eta Zuzendaritzara helarazi eta alderantziz, herrialdekoa Euskal Herrira (kudeaketa).</li> <li>- Kanpo komunikazioa: gure proiektuaren hedapena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kudeaketan hitz egiten dena lan taldera helarazi (informazioaren kudeaketa zainduz).</li> <li>- Barne orria baliatu.</li> <li>- Zuzendaritzaren eta lan taldearen arteko zubi lana behar den bezala egin irakasleen ordezkariaren eta koordinatzailearen bidez. Urtean behin (gutxienez) Zuzendaritza eta lan taldea elkartu.</li> <li>- Webgunea behar bezala elikatu eta bestelako bitartekoak aprobeztatu: Bertsozalean Gipuzkoaren ekarpenak egin.</li> </ul>
<p><b>Kanpo harremanak</b> Orain arteko harremanak behar bezala zaindu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalen eta ikastetxeen zalantzei/beharrei erantzun.</li> <li>- Foru Aldundiaren parte hartze prozesuetan parte hartu. Aukera den guztietan gure proiektua (bere osotasunean) ezagutaraziz.</li> </ul>
<p><b>Internet</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Webgunean gure ekimen guztien berri eman eta sare sozialen bidez hedapena bermatu.</li> </ul>

<b>Transmisioa/Hezkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<p><b>Bertso-eskolak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskolekin dugun harremana sendotu eta horretarako bide zuzenak bilatu. Dituzten beharrei erantzun ahal den neurrian.</li> <li>- Hezkuntza: irakasleen formazioa eta konpartitzeko gunea.</li> <li>- Aisialdia: eskaintza irakasleekin elkarnalean antolatu.</li> <li>- Ez dagoen lekuak bertso eskola sustatzea.</li> <li>- Bitartekaritzak eta adminitrazioarekin harremana.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskolen batzordean ikasturteko 3 bilera egin.</li> <li>- Irakasleei lan egiteko baliabideak eskaini: proposamen didaktikoa eta materiala.</li> <li>- Bertso eskolen eguna antolatu: antolatzeko bertso eskoletako irakasle batzuekin lan taldea osatu eta elkarlanean antolatu.</li> <li>- Gazteen egonaldia antolatu izana: antolakuntza ikasle gazteak dituzten irakasleekin konpartitu.</li> <li>- Aisialdiko ekintzen berri irakasleei zuzenean eman (eta ez webgunearen bidez edo email bidez bakarrik).</li> <li>- Motibazio saioak: eskatzen zaigun lekutan egin eta interesatzen zaigun lekutan eskaini.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Matrikulazio kanpainenetan zubi lanak egin bertso eskolen eta ikastetxeen artean hezkuntza arautuko irakasleen bidez.</li> <li>- Behar den lekuak irakaslea aurkitu eta kontratazioa egin.</li> </ul>
<p><b>Bertso eskolen arteko harreman sareak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lekuan lekuko topaketak bultzatu eta herrialde mailako ekintzak baliatu ume eta gazteek harremanak egiteko.</li> <li>- Helduen bertso eskolen arteko harreman sareak eta beharrak aztertu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bailaraka gaztetxoek irakasleak elkartu eta topaketak egiteko proposatu.</li> <li>- Helduen bertso eskola bakoitzeko ordezkari bana elkartu ikasturte bukaeran. Ikasturte berrirako proposamenak jaso.</li> </ul>
<p><b>Umeen eta gazteen plazaratzea</b></p> <p>Jendaurrean trebatzeko neurriko aukerak eskaini.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolartekoa antolatu.</li> <li>- Bertso Eskolen egunean umeei plaza eskaini.</li> </ul>
<p><b>Hezkuntza Arautua</b></p> <p>Azken urtetan herrialde osoan hedatuta eta egonkortuta dagoen proiektua izanik kalitatean eragin eta hobetzeko proposamenak aztertu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle mintegiak sistematizatu eta zaindu.</li> <li>- Irakasle mintegietan jasotzen dena kontuan hartu eta aldaketak aztertu eta ahal den heinean gauzatu.</li> <li>- Aldaketak ikastetxe eta udalekin ditugun jarraipen batzordeetan landu.</li> </ul>
<p><b>Lanaren kalitatea zaindu</b></p> <p>Hezkuntzan ari garenaren kontzientzia hartu eta ikaslea erdigunean jarri. Proiektuaren helburuak berraztertu eta betetzeko bitartekoak jarri.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleen formazioa: geure buruarengandik eta elkarrengandik ikasiz bertsoetan ikasteko/irakasleko metodoa aztertzen segi.</li> <li>- Irakasle lana hobeto egiteko hutsuneak identifikatu eta formazio espezifikoa antolatu.</li> <li>- Irakasleen formaziorako formatzaileak formatu kanpo laguntza bidez.</li> <li>- Norbere lana ebaluatzeko tresnak eskaini.</li> <li>- Proiektua eta emandako emaitzak taldean ebaluatu.</li> <li>- Ikasturte bukaerako jaialdietan eskaintza ezberdin bat egin eta haurrak bat-batean egitera bultzatu.</li> </ul>
<p><b>Egitasmoa hedatu</b></p> <p>Gipuzkoa osoan proiektuen parte hartzen ez duten ikastetxeak identifikatzea.</p> <p>Adin tarte zabalagoari eskaintzeko aukerak aztertu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoa osoko ikastetxe denek zerrenda egin eta non ez gauden jaso.</li> <li>- Haur Hezkuntzan eta DBH-n proiektua lantzeko aukerarik baden, eta baldin bada nola egin dezakegun aztertu.</li> </ul>

<b>Sustapena</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
GBT2019ko balorazioa behar bezala egin eta sustapen arloan hobetzekoak identifikatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolariekin, gai jartzaileekin eta epaileekin balorazioa egin.</li> <li>- Zuzendaritzan balorazioa aztertu.</li> </ul>
<b>Antolaketa:</b> Bertso-eskolei, antolatzaileei... guregana jotzen dutenean behar duten aholkularitza eskaini. BTN21, EHBE-rekin elkarlana.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolatzaieengandik datozen deiei eta mezuei erantzun.</li> <li>- Lankuren berri eman izana eta antolatzaileen eskaera Lankura bideratu.</li> <li>- BTN: talde antolatzailean parte hartu eta Gipuzkoako saioetan EHko sustapen ergailearekin elkarlana.</li> </ul>
<b>Epailetza:</b> Epaile taldearen funtzionamendua eta formazioa bermatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epaile eskola iraunkoraren jarraipena egin Euskal Herriko sustapen eragilearen bidez.</li> <li>- Epaileei trebatzeko lekuak eskaini: adibidez sariketetan.</li> <li>- BTN21ean Gipuzkoako epaileen parte hartzea behar bezala bideratu.</li> <li>- Epaile berri posibleei adi egon.</li> </ul>
<b>Gai-Jartzailetza:</b> Gai jartzaile taldearen funtzionamendua eta formazioa bermatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai jartzaile berriei trebatzeko lekuak eskaini: adibidez sariketetan.</li> <li>- BTN21ean Gipuzkoako gai jartzaileen parte hartzea behar bezala bideratu.</li> <li>- Gai jartzaile berri posibleei adi egon.</li> </ul>
<b>Komunikazioa:</b> Talde teknikoak Elkartearen proiektuaren parte senti daitezten harremana etengabe zaindu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epaileekin eta gai jartzaileekin maiztasun jakin batekin elkartu.</li> </ul>
<b>Bertsolarien plazaratzea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolarien plazaratzean elkartearen ardurak zeintzuk diren aztertu eta behar denean esku hartu.</li> <li>- Plazaratze bidean daudenei bide hori erraztu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sariketetako antolatzaileei adin tarte bakoitzeko bertsolarien zerrenda bidali.</li> <li>- Sariketen informazioa eskatu eta jaso izana.</li> <li>- Gazteei autoformaziorako tresnak eskaini eta plazaratze prozesua konpartitzeko gunea sortu. Plazan aritu nahi dutenentzat bertso eskola.</li> </ul>
<b>Sariketen koordinazioa</b> Sariketen antolaketaz tokian tokiko bertso eskola edo eragileak arduratzen dira. Antolatzaileekin informazio trukea bermatu, parte hartzaileetan aniztasuna bultzatu.	

<b>Ikerkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
<b>Bertsolaritzaren oinarrizko fondo biltzen jarraitu eta antolatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskolei dokumentazio zentroaren berri eman.</li> <li>- Handik eta hemendik jasotako materiala Xenpelarrera eraman.</li> </ul>
<b>Bertso-ekitaldien informazioa bildu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskolei antolatzen dituzten ekimenen berri emateko eskatu.</li> <li>- Jasotako informazioa Xenpelarrera bidali.</li> </ul>
<b>Argazki bilketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarateak antolatutako ekitaldi guztietako argazkiak atera eta Xenpelarrera eraman.</li> <li>- Bertso eskolei eta antolatzaileei euren ekimenetan argazkiak ateratzea aholkatu.</li> </ul>
<b>Plazaz plazako bertso-ekitaldien grabazioen bilketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarateak antolatutako ekitaldi guztiak bideoz grabatu eta Xenpelarrera eraman.</li> <li>- Saioen antolatzaileei ekitaldiak grabatzeko aholkatu.</li> <li>- Bertso eskolei bideo kamera eskaini.</li> </ul>
<b>Bertsoen transkribaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- GBT2019ko bertso guztiak transkribatu.</li> </ul>



## 9.5. Nafarroako Bertsozale Elkarte

<b>Urteko helburuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmoa, lan taldea eta funtzionamendua egonkortzea eta fintzea.</li> <li>- Egunerokotik harago, begirada estrategikoarekin lan egiten hasi</li> <li>- Instituzioekiko interlokuzio egokian sakondu</li> <li>- Elkartearen partaidetza prozesuan Nafarroan egoki eta parte hartze ahalik eta handienarekin garatuko dela bermatu</li> <li>- Feminismo Batzordean sakondu: gogoetatik neurri zehatzetara pasa</li> </ul>

<b>Idazkaritza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Egitasmoa, lan taldea eta funtzionamendua egonkortzea eta fintzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-taldearen barruko zereginak eta ardura banaketa aztertu eta modu eraginkorrean antolatu</li> <li>- Lan-taldearen barruko koordinazioa indartu, bilera dinamika eta egutegi antolatuago batekin</li> </ul>
Diruzaintza lana eraginkortu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmoaren neurketa ekonomikoa egin, gauza bakoitzaren kosteak eta sarrerak ongi baloratzeko</li> <li>- Fakturazioaren jarraipenerako tresna berriak sortu</li> <li>- Diru-laguntzen mapa osatu: orain artekoak eta aukera berriak</li> </ul>
Instituzioekiko interlokuzio egokian sakondu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Interlokuzioa dugun erakundeekin bilera erronda, elkar ezagutu eta proiektuaren jarraipenerako</li> <li>- Elkartearen aurkezpen karta banatu, gure egitasmoa ezagutarazteko.</li> </ul>
Zuzendaritza berritu eta egonkortu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritzara kide berriak erakarri</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza osatzen dugunon motibazioak eta interesak ezagutu eta elkarbanatu</li> <li>- Ardura partekatzeko pausuak eman</li> <li>- EHBEren lehendakaritzan nafar ordezkaritza txertatu</li> </ul>
--	---

<b>Komunikazioa</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Barne komunikazioa: lan-talde, borondatezko eta bazkideak informatuta mantendu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzar Orokorra</li> <li>- Bertsozale-n Nafarroako informazioa bermatu</li> <li>- Zuzendaritzarekin harreman jarraitua</li> <li>- Bazkideen email sarea</li> </ul>
Kanpo komunikazioa: egitasmoen hedapena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Webgunea eta sare sozialak</li> <li>- Prentsarekin etengabeko harremana: hitzarmenen aukera zehaztu</li> <li>- Egitasmoen euskarri propioak</li> <li>- Bertso Eskoletarako irudi eta kanpaina propioa</li> <li>- Aurkezpen karta euskarri bezala baliatu</li> </ul>

<b>Sustapena</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Bardoak 2020: Nafarroako Bertso Eskolen Sarea aktibatu, taldeen kohesioan eta elkar harremanean sakondu, bertsolari gazte eta hasiberrien plazaratzea erraztu. Egitasmoa Nafarroako lurraldean barreiatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bardoetako izen-ematea</li> <li>- Taldeen parte hartzea egitasmoaren antolaketan</li> <li>- Egitasmoaren hedaduraren mapa: herri gehiagotara zabaldu</li> </ul>
NBT21 diseinatzen hasi	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Txapelketaren helburuak eta ezaugarri nagusiak zehaztu</li> <li>- Txapelketaren mapa osatu: herriak eta aretoak erabaki</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaileekin hitzarmena</li> <li>- Nafarroako txapelketa BTN21-rako erabakietara egokitu.</li> <li>- Txapelketaren ziklo aldaketaz gogoetatu eta erabaki</li> <li>- Epaile eta gai-jartzaile taldeekin jarraipen zuzenagoa egin</li> <li>- Komunikazio lana ongi antolatu</li> </ul>
Bertsoaroa 2020: Bertsolaritzaren kalitatezko eskaintza bermatzea Iruñean, bertsolaritzaren aniztasuna ikusarazi eta Nafarroako bertsolariak/gazteak promozionatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalitatezko eskaintza, punta-puntako bertsolariekin.</li> <li>- Eskaintza anitz eta osatua, publiko segmentu ezberdinei begira, eta bertsolaritzaren alderdi ezberdinak kontuan hartuko dituen.</li> <li>- Nafarroako bertsolarien eta gazteen presentzia ziurtatu.</li> </ul>
Bertsokabi 2020: Bertsolari gazteen plazaratzea sustatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolari gazteen bertsogintzan sakontzeko aukera gisara baliatu</li> <li>- Ahal den neurrian sariketa prestigiatzen saiatu</li> </ul>
Epaile eta gai-jartzaile taldeei jarraipena egin eta baliabideak eskaini.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeak indartu eta egonkortzeko apustuak egin, jende berria erakarriz.</li> <li>- Formakuntza jarraitua eta baliabideak eskaini.</li> </ul>
Bertso saioen antolaketa sustatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartetik lagundu eta bitartekaritza lanak egin saioen antolaketarako</li> <li>- Herrietan saioak antolatzeko proiektua bultzatu: diru-laguntza berrien azterketa</li> </ul>
Saioetako antolaketa, ordainketa eta kontratazioa argitu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plazaren azterketa baliatu gai honi dagozkion datuak jasotzeko</li> <li>- Bertsolariekin mintegia antolatu, saioen antolaketa eta kobraketa moduak zeintzuk diren argitzeko</li> <li>- Saioak antolatzeko gida egin, antolatzaileei eskaintzeko</li> </ul>

<b>Transmisioa/ Hezkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Hezkuntza Arautuko eskaintza egonkortu eta ahal den neurrian sakondu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Finantziario sistema egonkortu eta hobetu. Programaren neurketa ekonomikoa zehaztu, eta tarifikazioa berraztertu.</li> <li>- Programaren hedadurari eutsi, eta ahal bada handitu.</li> <li>- Programa DBHn modu antolatugoa eskaintzen hasteko egokitu</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetako irakasle "arruntek" bertsolaritzaren oinarritzko edukiak jasotzeko formazioa eskaini.</li> </ul>
Bertso Eskolak: sarea egonkortu, eskaintza hobetu eta taldeen jarraikortasuna bermatu. Bertso Eskolen Plana. Bertso Eskolen irudia berri.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso Eskolen eskaintzaren antolaketaz gogoetatu: taldeen osaketarako irizpideak, irakasleak, matrikula tasak...</li> <li>- Taldeen jarraikortasuna bermatzeko neurriak hartu: ikastetxetik herrira salto egin, eta gune iraunkor bezala mantendu.</li> <li>- Bertso Eskolen Sarearen eskaintzaren hedadurari eutsi, eta ahal bada talde berriak osatu</li> <li>- Finantziazioa egonkortu. Bertso Eskolen neurketa ekonomikoa zehaztu.</li> <li>- Bertso Eskolen Komunikazioa: irudi berria eta material propioa. Komunikazio kanpaina zaindu bat diseinatu.</li> </ul>
Aisialdiko jarduera osagarriak: gazteen plazaratzea, harremanak sendotzea, alderdi ludikoa eta aisialdizko bultzatzea...	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolartekoa: Bertso Eskoletako gazteen plazaratzea.</li> <li>- Bertso Eskolen Eguna / topaketak</li> <li>- Negulekuak</li> <li>- 17-20 urte artekoentzako gazte egitasmo berria diseinatu</li> </ul>

<b>Ikerkuntza</b>	
<b>Helburu zehatzak</b>	<b>Ebaluazio adierazlea</b>
Bertsolaritzak Nafarroan uzten duen ondarea jaso eta gorde.	Bertso saioetako argazki, audio eta bideoak jaso eta dokumentatzea.
2018ko Kultur Intereseke Ondasun izendapenari aplikazioak bilatu	Nafarroako Gobernuaren izendapenari jarraipena emango dion aplikaziorik bilatu: argitalpenen bat, jardunaldiak...
Nafarroako Bertsolaritzaren historia laburtua osatu	Euskarri txiki bat sortu, eskaerei erantzuteko: historia laburtua jasoko duen dokumentu bat
Bertsolaritza eta Nafarroako jota bateratuko dituen egitasmoa diseinatu	Joten inguruko erreferentziak identifikatu eta interlokuzioa abiatu Balizko proiektuaren nolakotasuna aztertu
Nafarroan egindako elkarrizketak eta ikerketak bildu	Kike Diez de Ulzurrun eta Pedro Diez de Ulzurrunek bere garaian bildutako materiala jaso eta argitalpena aztertu.